



SAKANAKO ASTEKARIA

2020ko ihoteak Mozorrotu zaitetz gurekin!





Yuuyum Irratiko Socorro Cauch Caamal, Guaixeko Gema Lakuntza Lopezen eta Alfredo Alvaro Igoaren artean.

Elkar indartuz, txikiak handi

Gure hizkuntzen, kulturen eta hedabideen berri elkarri eman eta informazio hori gure inguruan zabaltzea. Konpromiso hori hartu genuen Yuuyum Irratiak eta Guaixek "Elkarrekin indartuz" senidetze manifestua sinatu genuenean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Urretxoriak (Psarocolius montezuma) bere kafiak egiteko oso modu berezi eta deigarria du. Zuhaitzen adarretatik zintzilikatzen den zaku moduko bat egiten du adarrekin eta landare-zuntzekin. 60 eta 180 cm-ko luzera ere izan ditzakete zintzilikatutako kafi horiek. Urretxori emeek bi arrautza jarri ohi dituzte, 15 eguneko txitatzearen ondoren zabaltzen direnak. Txitek kafian hilabete eskas emanen dute. Denbora horretan guztian haizeak kulunkatuta haziko dira.

Kulunkatze horri Yucatan penintsulako mexikarreko maiek yuum hots egiten diote. Eta urretxoriari yuuyum.

Hegazti horri erreparatu zioten Yucatan maiek euren komunitate-irratia sortzerakoan, eta Yuuyum Irratia izena eman zio-

**HEDABIDEEK
HIZKUNTZA GUTXITUEN
NORMALIZAZIOAN
EGITEKO
GARRANTZITSUA DUGU**

ten. Lau urte bete ditu proiektuak dagoeneko eta bihar arratsaldean Mexikoko Merida hirian ospatuko dute. Bideo bidez, Guaixe ospakizunean presente izanen da, eta horrela hainbat hilabetez garatuko den elkarlanari hasiera emanen diogu. Izan ere, bi hedabideak, Yuuyum Irratia eta Guaixe, senidetu egin baikara.

Zergatia

2018ko lastailaren 21era egin behar da atzera senidetzearren arrazoia opatzeko. Nafarroa Oinez festa hartu zuen egun hartan

Altsasuk eta, Iortia kultur gunean egindako ekitaldian, Guaixe fundazioak hizkuntza gutxituen aldeko *Txikiak handi* manifestua sinatu zuen. Uste baitugu mundua ele-anitza dela eta hizkuntzak kultura-altxorrek direla, munduari aniztasuna eta aberastasuna ematen diotenak. Hizkuntzak, gainera, herrien eta pertsonen identitaterako eta garpenerako funtsezko tresnak direlako sinatu zuen Guaixek manifestua. Aldi berean aldarrikatu genuen, aurrena, hizkuntza gutxituak errespetatuak eta kontuan hartuak izateko eskubidea dutela. Hurrena, gure hizkuntzek legaltasun osoa izateko eskubidea dutela beraien eremuan. Eta, atzena, gure hizkuntzetan gizartearen edozein esparrutan bizi ahal izateko eskubidea aldarrikatu genuen. Eta konpromiso bat hartu: hizkuntzen normalizazioan lanean segitzeko gure arteko zubiak eraikitzea, txikion batasunak handi egiten gaituelako.

Konpromiso hori kontuan izanda, eta Guaixe hedabide bat izanik, logikoena hizkuntza gutxitu batean ari diren hedabideekin loturak estutzea litzatekeela pen-



Yuuyum irratiaz

Merida hirian dagoen irratia ren helburuak dira Yucatan maia ikustaraztea, harendako erabilera espazio bat sortzea eta maia izatearen estereotipoen kontrako rol aglutinatzailea izatea. Boluntario ugari osatutako kolektibo batek sortu zuen irratia. Elkarte zibila eratu dute orain eta beraien hizkuntzaren aldeko jarduerak sustatuko dituzte, irratia emanaldiak zabaltzea barne.

Irratiak www.yuuyum.org webgunearen bidez zabaltzen du seinalea, Mexikon halako proiektuetarako ez baitago irratia espazioan frekuentzia banaketarik. Saio gehienak astelehenean dira, 17:00etatik 22:00etara. Programazioa osatzen dute maieraz ikasteko eskola praktikokoak, maia herriko pertsonaiek ezagutarazteko saioak, albistegiak, maia literatura, ikuspegi feministako gaiak eta beste. Facebook profilaren bidez bidez entzuleekin harremana izaten dute eta AEBn bizi diren maieraz mezuak jasotzen dituzte maieraz.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Yuuyum Irratiko esatariak saio batean. WWW.YUUYUM.ORG

tsatu genuen. Gure 25. urteurrenaren testuinguruan hizkuntza aniztasunaren eta tokiko hizkuntzetan ari diren hedabideen balioa aitortzeko modua nahi genuen. Izan ere, hedabideek hizkuntza gutxituen normalizazioan egiteko garrantzitsua baitugu.

Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera munduan 6.700 hizkuntza daude eta haietatik %40 arriskuan daude, indigenak gehienak. Horregatik, NBEk 2019a Hizkuntza Indigenen Nazioarteko urtea izendatu zuen, hizkuntza horien galeraz ohartarazteko eta nazio eta nazioarte mailan horiek babesteko, biziberritzeko eta sustatzeko beharra erakusteko.

Ozeano horretan galduko ez baginen itsasargi bat behar genuen eta munduan barna hizkuntza lankidetzan aritzen den Garabide elkartearengana jo genuen ideiarekin. Guaixe laguntzea erabaki zuten.

Garabidek antolatuta Hizkuntza Biziberritzeko Gidaritzari buruzko Ikastaldi Trinkoan hainbat hizkuntza komunitateetako ordezkariak bat egin zuten Aretxabaletan lastailean. Haien artean ziren Mexikoko Yucatanetik etorritako bi kide. Garabidearen bidez Guaixeren ideiarekin

MAAYAT'AANAREN ETA EUSKARAREN BERRI GURE KOMUNITATEEI EMATEA DA HELBURUA

berri jaso ondoren harremanetan jarri ginen.

Senidetzea

Yuuyum Irratiko eta Guaixeko kideak harremanetan jarri ginen eta elkarren berri jaso genuen. Elkarren berri izateko eta norberaren komunitatearen berri elkarri nola eman aztertzeke iritzi trukeak izan genituen e-posta bidez. Ideia gorpuzten ari zen eta Guaixeren 25. urteurrena zela eta Irurtzunen joan den urteko lastailaren 13an (L) Aniztasunaren Festan senidetzea izanen zela aurreratu genuen.

Aretxabaletako egonaldia baliatuta Yuuyum Irratiko Socorro Cauich Caamal Guaixeren egoitzara etorri zen lastailaren 16an. Bilera emankorra izan genuen eta senidetzea nola gauzatu zehaztu genuen. Horretan, Garabideko Maialen Sobrinoren laguntza izan genuen. Senidetze agiria Cauichek eta Alfredo Alvaro Igoak sinatu zuten Aretxabaletan joan den urteko lastailaren 28an.

Gauzatzea

Yucatan maiaren, maayat'aanaren, eta euskararen berri gure komunitateei ematea da helburua. Horretarako gure hedabideak erabiliko ditugu: Yuuyum Irratia, www.guaixe.eus eta Beleixe Irratia. Hizkuntzari buruzko hainbat aspekturen inguruan arituko gara. Horretarako, astero gai baten inguruan ariko gara. Nork bere hizkuntzaren inguruan informazioa sortu eta elkar trukatu dugu. Dibilgazio lana egitea



Bi hedabideetako ordezkariak senidetzea zehazteko bilera batean.

Jorratuko diren gaiak

1. 2020-02-22 Aurkezpena.
2. 2020-03-02 Hizkuntza.
3. 2020-03-09 Hizkuntzaren egoera.
4. 2020-03-16 Hizkuntzaren estandarizazioa.
5. 2020-03-23 Hizkuntzari buruzko legedia.
6. 2020-03-30 Hizkuntza politikak.
7. 2020-04-06 Gobernuen eta agintarien hizkuntzaren jarrera.
8. 2020-04-13 Hizkuntzaren alde lanean ari diren tokiko taldeak.
9. 2020-04-20 Hizkuntza hitz egiten den eremua.
10. 2020-04-27 Hizkuntzaren erabilera.



Guaixe, Yucatan maia idazkeran

Goiko irudi hori glifo bat da eta Guaixe esan nahi du. Yuuyum Irratiko kideen oparia da.

da helburua, beraz, astero emanen diren saio horiek 5 bat minutuko iraupena izanen dute. Saiok badute berezitasun bat, norberaren komunitateko kideek emanen dituztela azalpenak eta ez hedabideetako kideek. Hau da, maayat'aanaren berri yucatanarrekin emanen digute. Euren hizkuntzan. Eta hura entzuteko aukera izanen da, baita zer esaten duten ulertu ere, itzulpenak emanen baititugu. Yuuyum irratiaren denez, audioak izanen dira bidaliko dituztenak. Horiek, esan bezala, Beleixe Irratian eta www.guaixe.eus web orrian sortutako atal berezian entzuteko aukera izanen da. Eduki trukea dela esan dugu. Horregatik, hainbat sakandar kamera aurrean jarriko dira euskararen berri eman eta yucatanarrekin azalpenak emateko.

Yuuyum irratiaren emanaldiak astelehen arratsaldeetan dira. Eta tarte horretan emanen dituzte Sakanan euskarari buruzko saioak. Baina bi herrialdeen arteko ordu-aldea dela eta maayat'aanaren berri ematen duten saioak astearteetan entzuteko aukera izanen da gurean.



ASTEKOA

RAF ATXURI

"Ez da oro maitatzea..."

Norbera maitatzeko aitzakia?" Honakoxea izan zuen goiburu urtarrilaren 31n Arbizuko Herriko etxean Juanjo Olasagarreren literaturgintza aitortzeko eta goraiatzeko egin zen ekitaldiak.

Arrats epela (ia beroa) giro, neguaren bihotzean ginen arren mendi gainetan elur arrastorik ez zen ageri, eta Iyurbaingo aurrealde harro pertxentak urrekara ñabar eta hautsiak islatzen zituen. Sergio Goikoetxeak eta Juan Migel Arzelusek iradokikor jantzi zuten ebentoa. Juanjoren hainbat lagunek aletu zuten puskaz puska eta ahots gora idazle arbizuarraren literaturbide honezkero luzexkoa eta luxuzkoa.

Izan ere, 1991n Gaupasak olerki lanarekin eman zion estreina. Geroztik itzulpena, nobela, antzerkia, hegoafrikar kronika, kazeta-zutabeak, blogintza... gehitu dira ongi hornituriko zerrendara. Bada, literatura esplikatzeko eskolak eta belaunaldiak aipatzen dira, eta arbizuarra "Tropelako" belaunaldikoa suertatu arren ordokian zein malda pikuetan, erlojupekoan nahiz esprintetan jardun bikainak osatu ditu bere letra-ibili kokkorrean, egokitu zaien garaia eta bizigunea

JUANJOREN HAINBAT LAGUNEK ALETU ZUTEN IDAZLE ARBIZUARRAREN LITERATURBIDEA

gordin, apain eta zorrotz kontatzeko lantegiari muzin egin gabe, Sakanatik bere egia plazaratuz, irakurlearen begi, gogo eta bihotzak astinduz, goxatuz, aztoratuz, laztanduz... Horra Patxi Floresek aineratu zuenaren zati bereziki esanguratsu bat:

"Erre/ erre eta fu egin/ fu egin eta pipatu/ eta posmodernitatearekin bat/ zein interesantak/ zigarroa eskuetan/ kameleoiak/ adibidez/ antzinako garaiez mintzo / lightki/ eta edadetuz/ kantatzen genuen/ gure koadrilan/ gure koadrilan/ desagertu franko/ jada koadrilarik ez dago/ ez orain eta ez gero. Gero bizitza etorri da/ eta badirudi/ (gaira heldu erabiltzearen) / grisa dela/ garaiekin moldatzeko beharrezkoa dena".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitululka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Lakuntzako itsasoa

Lakuntzan itsasoa estoldetan hasten omen da. Edo hori esaten dute behintzat estolden ondoan jarri dituzten kartelek. Erretzaileak kontzientziazteko kanpainak argi jartzen du zigarrokina estoldatik behera botatzearen ondorioak zeintzuk izan litezkeen.


Lakuntzan, oraingoz behintzat, itsasorik ez, baina zeinek daki klima aldaketak ekarriko duena. Horregatik, oraingoz, hobe dugu kartelei kasu egin eta estoldatik behera ezer ez botatzea, bestela txalupak egiten has gaitezkeelako.

ZUZENKETA

Aurreko zenbakiko Duela 25 urte atalean 1995eko Olatzagutiko kintoen berri eman genuen, orduko hartan argitaratutakoari segituz. Kinto haiek Guaixerekin harremanetan jarri dira zenbait gauza zuzendu nahi zituztelako. Alde batetik, kinto ospakizunean primeran pasa zutela nabarmendu dute. Bestetik, ospakizun

antolaketan emakumezkoek eta gizonezkoek berdin lan egin zutela azaldu digutenez, egunero plazan dantzaldia jarri zuten eta txaranga ere egunero ibili zen. Kinto-eskean bildutako diruak ez zien guztia pagatzeko eman eta euren poltsikotik jarri behar izan zuten dirua. Beraz, ez zuten zorrik utzi.

OBJEKTIBOTIK



guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

fundazioa@guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675
Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Urdalurrek Arakilen barneratzen segituko du

Sakanako Mankomunitateak aurten 5.379.456 euroko aurrekontua izanen du, joan den urtean baino 400.000 euro gutxiago, inbertsio hain handiak egin behar ez dituelako. Inbertsio nagusia Urdalurko ur sarearen luzatzea izanen da

SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen Ur Zerbitzuaren bidez, Urdalur uharkako urarekin ibarreko hainbat herri hornitzen dira. Urdalurko uraren goi-horniduraren hoditeria gaur egun Sustrategiraino iristen da. Mank-ek aurten egitea aurreikusten dituen lanekin hoditeria Etxarreneraino luzatuko da (azken helburua Irurtzunera iristea da). Horretarako, Mank-en Ur Zerbitzuaren 551.000 euro bideratu ditu. Zerbitzu berak dagokion zatia pagatuko du gaur egun egiten ari diren beste hiru lanetan: Iturmendiko sareak berritzeko 56.8000 euro, Urdiaingo Bentalde kaleko saretarako 60.500 euro eta herri bereko De Felipe kaleko saretarako 68.900 euro.

Ibarreko erakundearen Hondakin bilketa Zerbitzuak hartuko du beste inbertsio handi bat: hondakin bilketarako kamioi konpaktatzaile berria. 135.000 euro bideratuko ditu horretara. Azaroan halako beste ibilgailu bat eskuratu zuen Mank-ek. David Oroz Alonso presidentek azaldu digunez, "flota zahartua dugu eta pitteka berritzen joan gara". Kamioi horien ibilbideak optimizatzeko GPS sistema bat martxan jarriko du Mank-ek. Informatika-sistema hori aurten



Pala bat ur sareko hodiak jartzeko lanean. ARTXIBOA

aktibatuko da. Hura ezartzeko Mank-ek 80.000 euro bideratu ditu. Horietatik 48.000 euro Landa Garapenerako Planeko dirulaguntzen bidez jaso ditu.

Hondakin Zerbitzuak egiten duen beste inbertsio bat edukiontziak erostea izanen da. Joan den urtean industrialdeetakoak berritzeko erosi baziren, aurten Irurtzungoak eta Altsasukoak berritzeko izanen dira. "Zahartuta eta hautsita daude, eta ahal denean ordezkatzeko ditugu". Horretarako, Mank-ek 78.000 euro jarri ditu. Eta beste 7.000

euro auzo-konpostagailuetarako. Inbertsio horietarako ez du laguntzarik jasoko.

Joan den urteko aurrekontuetan hondakinei buruzko lau inbertsioetatik bat egingo dago: transferentzia kaia ixtearena. Beraz, Arbizuko hondakindegian kamioiak kargatzen ari direnean eta haizeak jotzen duenean ontzi arinak ez dira hegan ateratzen. Beste hiru lanak martxan daude. hondakindegian bertan konpost plantarako lanak udazkenerako despeditu nahi dituzte. Hasi diren ere, Altsasuko eta Ziordi-

ko garbiguneak egiteko lanak dira. Biak uda aurretik erabilgarri egotea espero dute Mank-en. Altsasuko Udalak Pilotajaukun duen biltegiaren ondoan ari dira garbi guneko lanak egiten. 144,3 m²-ko espazio itxia izanen da, porlanezko zoruarekin, eta barruan hainbat edukiontzi izanen dira, hondakinak gaika egoki birziklatzeko. Ziordikoa, berriz, elizaren atzean egonen da. 388 m² izanen ditu. 4 edukiontzi izanen ditu, inausitakoa, altzariak, etxetresna-elektrikoak eta obra txikiak hondakinak jasotzeko.

Bestetik, eraldaketa digitala Mank-en bertan aplikatzeko 25.000 euro bideratu dira. Mantentze lanetarako diru-saila ere handitu egin du Mank-ek. Orozek azaldu digunez, aurrekontua "zerbitzuak mantentzeko, egonkortzeko eta ahalik eta zerbitzu onena ematera bideratuta dago".

Ur-kontagailuak

Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Bakaikun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian Mank ur-kontagailuen irakurketa eskuz egitera pasa da behin-behinean. Hau da, enpresa bat kontratatatu du etxeetatik pasa eta barruan dauden ur-kontagailuak irakurtzeko. Langilea etxera joan eta bertan inor ez badago oharra utziko du ur kontagailuaren irakurketa Mank-era bidaltzeko eskatuz. Horretarako, hiru bide izanen dira: 948 464 867 (4. luzapena) telefono zenbakia, 663 399 732 telefono zenbakira whatsapp mezua bidaltzea edo ura@sakana-mank.eus e-postara mezua bidaltzea. Irakurketa ematean honako datuak eman behar dira: abonatu zenbakia (oharrea agertuko da), izen-abizenak eta irakurketa edo kontagailuaren argazkia.

Ibarreko erakundeak 2012an herri horietako etxeetan kontagailu bereziak jarri zituen: irrati bidez etxeetako kontsumoen berri ematen zion kaletik auto batean pasatzen den tablet bati. Gomez Contadores SL enpresarekin 430.000 euroko akordioa itxi zuen orduan Mank-ek. Orozek azaldu digunez, "hamar urterako akordioa sinatu zen, baina kontagailuen irrati bateriak agortu egin dira. Irrati modulu horrek arazoak eman ditu, esaterako, ur kontsumoa egon denean zero ko irakurketa eman izan dute. Gainera, ez du espero zen zerbitzua eman. Horregatik, enpresarekin genuen kontratua bertan behera utzi dugu". Orozek argitu dudenez, kontratua etete ko erabakiak ez du galerarik ekarri: "inbertsioa ez zen hasieran pagatu, hamar urtetan pagatzekoa zen. Kontratua zortzigarrenean eten denez, epe horri dagokiona pagatu da".

Mank-eko lehendakariak azaldu digunez, erabakia hartzeko Nafarroako beste mankomunitate batzuekin eta kanpokoekin kontrastatu dute. "Iruñean irakurketa eskuz egiten segitzen dute. Estatuko hainbat hiritan aurrerako saltoa egin eta zeuden arazoez jabetuta betiko sistemara egin dute atzera. Teknologia ez dago behar bezain garatua, ez dago horretarako prest". Orozek azpimarratu du, irrati moduluz aparte, ur-kontagailuak onak direla.

MANKOMUNITATEAREN PLAN ESTRATEGIKOA MARTXO AKABERARAKO EGINA IZATEA ESPERO DUTE

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak
Euskalerrria irratiaren eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneko albisteak

10:45 Hizketan

11:15 Sarea: Aralar eta
Karrape irratiarekin

11:55 Agurra

Kale Nagusia 10
(Etxarri Aranatz)
948 567 074
irratia@beleixe.eus

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

**C.A. OSASUNA
GRANADA**



OTSAILAK 23, IGANDEA

12:00-14:00

(IRRATIKO NONEXIOA 11:40EAN)

**EUSKALERRIA
IRRATIAREN BITARTEZ**

Aurrekoen "ondarea eskertuko" du M8-ak

Emakumeen nazioarteko eguna dela eta, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak programazio zabala prestatu du hurrengo hilabeterako. Egitaraua gaur abiaraziko da Urdiainen

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak estreinakoz bat egin du Nafarroako toki entitateek martxoaren 8rako egiten duten kanpaina bateratuarekin. Horien artean Altsasuko Udala dago. Aipatu kanpainak *izan zirelako jarraituko dugu!* leloa du aruten. Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzutik azaldu dutenez, "azken urteotako martxoaren 8ak agerian utzi dute emakumeok planto eginez gero mundua gelditu egiten dela. Baina hori guztia ez da ezereztik sortu; euren eskubideen alde emakumeek urte luzeetan eginiko borrokaren ondorio da. Ikasi dugu, gaurko borrokak



Urdiainen abiatuko da egitaraua.

berriak izan beharrean, aspal-dikoak direla".

Horregatik, aurtengo kanpainaren bidez "bide eta borroka hori omendu nahi izan dugu. Orain arte egindako bideak ikasi eta gure aurretik izan direnen esperientzia gure atzetik datozenen gogo biziarekin jarraitzeko". Hori dela eta, martxoaren 8an izan zirenak omendu nahi dituzte, baita utzi zuten ondarea eskertu ere.

Aurtengo kanpainak oihartzuna handiagoa izan dezan Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzutik ibarreko udal guztietara erakunde adierazpena aurkeztu dute, azter dezaten.

Bukaera saioetarako izen ematea

Berdintasun Zerbitzuak Martxoaren 8ko egitaraua Emakume sortzaileak, ahalduntzea sormena sentituz saioekin despedituko du. Emakume helduei zuzendutako saioak martxoaren 26an eta apirilaren 2an, ostegunetan izanen dira. Haietan parte hartzeko martxoaren 18 baino lehen egin behar da izena. Emakumezko gazteendako saioak apirilaren 22an eta 29an izanen dira, asteazkenetan. Apirilaren 8ra arte eman daiteke izena. Hori berdintasuna@sakana-mank.eus e-postaren bidez egin behar da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian jarriko dute.

Synergia, osasuna ardatz duen jardunaldia

Synergia Sakana taldeak hitzaldiak egingen ditu asteburuan, lortian, 10:00etatik 14:00etara

ALTSASU

Sakanako zazpi gaztek osatzen dute osasunaren dibulgaziorako sortutako proiektua. Egingen duten lehen ekimena nutrizioari, fisioterapiari eta ariketa fisikoa-ri buruzko hitzaldiez osatutako jardunaldia izanen da. Larunbatean eta igandean, 10:00etatik 14:00etara, izanen dira hitzaldiak. Bi egunetarako sarreraren prezioa 10 eurokoa da eta, besteak beste, Iortia kultur gunean eros daitezke. Hitzaldien artean hamaiketako ere eskainiko dute.

Ikasitakoa gizarteratzea eta dakitena jendeari erakustea da Synergia Sakanaren helburua. Nutrizionistak, fisioterapeutak eta ariketa fisikoko adituak dira taldea osatzen duten zazpi gazteak. Osasunari ikuspegi zientifikoa batetik hausnartzeko eta jendeari helarazteko modu hoberean jardunaldi bat antolatzea zela erabaki zuten. Bi egunetan banatu dituzte zortzi hitzaldiak. Larunbatean gai "orokorrak" landuko dituzte, gazteek aipatu bezala: nutrizioaren oinarriak, elikagaien etiketatzea, ariketa fisikoa eta minaren bilakaeraren oinarriak. Igandean gai zehatzei buruz ariko dira: zoru pelbikoa, emakume atleten triada, ariketa fisikoa hirugarren adinean eta minaren alderdi biopsikosozialak izango dira gaiak.

Leire Mazquiaran Bergera nutrizionistak, Maialen Unanua Irigoyen nutrizionistak, Daniel Echavarri Manjon entrenatzaileak, Imanol Reparaz Escudero fisioterapeutak, Nerea Arguelles Iriarte fisioterapeutak, Anne Azkona Unanua nutrizionistak eta Mikel Manero Arguelles fisioterapeutak sortu dute Synergia Sakana osasunaren dibulgaziorako proiektua. Auto-finantzatutako proiektua da. Asteburuko lehengo jardunaldia izango da, gehiago egitea aurreikusten baitute.

Egitaraua

Otsailak 21, ostirala

• **19:30** Zine foruma: "El orden divino" filma eta Maria Castejon Leorzarekin (genero eta zineman aditua) hizketaldia, Urdiango auzoan.

"El orden divino": 1971n, emakumeek oraindik ere ezin zuten botorik eman Suitzan. Nora etxeokandrea gaztea da, bi seme-alabaren ama, eta herri txiki batean bizi da. Bizitza lasai doakio, baina dena aldatuko da senarrak lan bat onartzea debekatzen dionean. Kontzientzia politikoa piztuko zaio eta, horrek bultzaturik, emakumeen boto-eskubidearen eta sexu-askatasunaren aldeko borrokei lotuko zaie.

Otsailak 28, ostirala

• **20:30** Hortzemuga Teatroaren "En sus zapatos" antzezlan eta ondoren UNRWako kideekin solasaldia, Irurtzungo kultur etxean. 40 pertsonarendako tokia dago.



Martxoak 1, igandea

• **17:30** Eidabe antzerki taldearen "Mari eta galleta fabrika" antzezlan, Etxarri Aranazko kultur etxean

Gonbidapenak jasotzeko, udaletxean edo Sakanako Mankomunitatean: berdintasuna@sakana-mank.eus

Martxoak 4, asteazkena

18:00etan Dorleta Kortazar Alkozen Zu eta ni haurrendako ipuin saioa, Ziordiko liburutegian

Martxoak 6, ostirala

• **17:00** Emakumearen egunaren historia. Pili Mikeorekin hizketaldia Etxeberrin. Arakilgo Udalak antolatuta.

• **19:00** "Cholitas" dokumentala, Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udalak antolatuta.

Martxoak 7, larunbata

• **19:00** Dorleta Kortazar Alkozen 80 amandre helduendako ipuin saioa, Arruazuko udaletxean.

Martxoak 8, igandea

Mobilizazioak Sakanako zenbait herritan

• **11:30-14:30** Txoko-lila, haur eta familiendako, Etxarri Aranazten. Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.

• **18:00** Ane Labaka eta Beatriz Egizabalen "Erradikalak ginen" antzezlan, Arbizuko udaletxean. Bilgune feministak antolatuta.

Martxoak 13, ostirala

• **22:30** Tdiferentzia taldearen "Perdiendo el juicio" antzezlan, Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udalak antolatuta.

Martxoak 15, igandea

• **12:00** Sakanako VII. Lilasterketa, Altsasuko Foru plazan. Altsasuko Udalak eta Mank-ek antolatuta.

• **17:00** "Meri, Mari eta Lari" antzezlan Olatzagutiko kultur etxean. Olatzagutiko Udalak antolatuta.

Martxoak 17, asteartea

• **19:00** Errotik, Sakana parekidea; Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako I. Planaren aurkezpena. Mank-en Lakuntzako egoitzan.



Martxoak 28, larunbata

• **18:00** Aldatzen Laguntzen antzerki taldearen Birritan bortxatua antzezlan, Ihabarren.



JUAN PABLO LATIEGI MARTINIKORENA

Zuhaitz Egunarekin animazioa

Izurdiagan hasi eta Aizkorben despeditu zen arakildarrak batu zituen ospakizuna. Izurdiagan joan den urtean landatutako zuhaitzak zuzentzeko hagak jarri eta ibai bazterra zaborrez garbitu zuten. Aizkorben, berriz, haurrendako jolas parkea izanzen dena egokitzeko baliatu zuten. Lau akazia, zuhaixkak eta usain-belarrak landatu zituzten.



Ermitako teilatua hondatuta

Satrustegiko kanposantuari itsatsia dagoen Santa Barbara ermitako teilatuaren zati bat plastikoz estalia darama azken hilabetea. Hegotik etorritako haizete batek hondatu zuen eta erretaula euritik babesteko plastikoa jarri dute. Asmoa da auzolanean errepassoa ematea. Teila zaharrak soberan dituztenak kontzejarekin harremanetan jar daitezke.

Kamineroen partzela herriarendako eskatuta

Herriaren parte bihurtu nahi du udalak, etxebizitzak, kaleak eta bestelakoak eraikitzeko. Gobernuarekin harremanetan dago horregatik. Industrialdean dago kamineroen partzela, eta sarrerako eraikina basozainendako egokitzen hasi dira

IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak Trinitate kalearen 19. zenbakian duen partzelari buruzko Hiri Jarduketarako Plan Berezia abiarazi du Irurtzongo Udalak. Kamineroen edo Errepideen Mantentze Zerbitzuaren partzela da hori eta udalak herriaren zati bihurtu nahi luke. Esaterako, honakoak egiteko: Artadia eta Ardantzeta kaleei Trinitate kaleraino segida emateko, oinezkoek kale horien arteko lotura hobea izateko, ibilgailuendako aparkalekuak sortzeko, Artadia eta Ardantzeta kaleen artean eta Trinitate kaleraino berdegunea sortzeko, Erga kalearen inguruan zuhaitzak dituen gunea sortzeko, bertan etxebizitzak eraikitzeko (gehienez behe solairua+2+atikoa) eta bestelakoetarako.

Horregatik, udal ordezkariak Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrena kontseilarekin harremanetan jarri ziren. Eta gaur egun Etxebizitza eta Ondare Zerbitzuen arteko bileraren emaitzaren zain dago udala. Aitor Larraza Carrera alkateak jakinarazi digunez, "Nafarroako Gobernuari proposatu diogu Trinitate kaleko 24an eta 26an dauzkan bi etxebizitza blokeetako 16 pisuak saltzeko eta lortutako diruarekin urbanizazio lanak egitea". Horre-



Kamineroen eraikina, ezkerrean, eta partzela goiko aldean daude, etxek inguratuta.

la, etxebizitza premiari ere erantzunen lioke operazioak. Udalak, gainera, Erabide industrialdean Bideak Mantentzeko Zerbitzuarendako erabilgarri izan daitekeen partzela gordea du.

Partzelaz

Gobernuaren lur sailak 7.301,77 m²-ko azalera du. Errepideen Mantentze Zerbitzuaren kamioiak eta istripua izan duten ibilgailuak gordetzeko erabiltzen da besteak beste. Irurtzongo hirigintza planak ez du onartzen bestelako erabilerarik ematea, ezta dagoen

eraikina handitzea, nahiz eta Mantentze eta Ingurumen Zerbitzuek halako eskaerak egin dituzten. Irurtzongo Udalak 2017ko lastailean lur sailaren egoerari buruzko txostena egin zuen eta inguru hori pitteka hondatzen ari dela nabarmendu zen.

Horregatik, Plan Berezia sustatu du udalak, partzela herriaren zati bilakatzeko. Haren banaketa izan litekeenaren zirriborroak www.irurtzun.eus web gunean ikusgai daude. Herritarren ekarpenak irurtzun@irurtzun.eus e-postan jasoko dituzte.



MARTXOAK 27

ERAIKUNTZA GEHIGARRIA

PARTE HARTZEKO:
948 564 275 | publi@guaixe.eus
*Publizitatea kontratatzeko azken eguna Martxoaren 13a

Bizipoza elkartearen aurkezpena, eta gehiago

Gaur, 19:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean izanen da 35 elkarte biltzen duen Bizipoza elkartearen dokumentalaren aurkezpena, baita Biak Batena. Ekitaldian Irantz Gonzalez dantza eskolak, Hodei magoak eta Beietz musika taldeak parte hartuko dute

ALTSASU

Bizipoza eta Biak bat elkartei buruzko dokumentala eta horiek eta gehiago biltzen dituen dokuweb orria aurkeztuko dituzte Altsasun gaur. Bizipozan ari den Anabel Arraizak eman dizkigu argibideak

Zer da Bizipoza?

Elkarteen elkarte da. Gaur egun 35 elkarte daude. Haurrekin lan egiten duten elkarteak dira gehienak. Izan daitezke gaixotasunen bat edo sindromeren bat daukaten haurrenak, familia eredu desberdinetan bizi direnen haurrak... Denetarik dago. Bizipozaren ezaugarri nagusietako bat aniztasuna da. Aldi berean, euskarak ere batzen gaitu eta Bizipozak bere jarduerak guztiak euskaraz egiten ditu.

Zein helburu ditu?

Bere helburu nagusia da elkarte horien guztien errealitateak gizarteratzea, eta balore horiek jasoaz gure buruari "klik" egin eta gizarte inklusiboago bat erai-



Anabel Arraiza Artieda. BARREN.EUS

kitzea. Haur horiek guztiak kontuan hartuko dituen gizarte inklusiboago bat. Haur horien eskubideak bermatuta izanen dituen gizarte inklusibo bat. Horretarako, Bizipozak hainbat ekimen egiten ditu.

Elkarte bakoitzak bere jarduerak egiten ditu, baina noizean behin halakoak ere sortzen dira.

Elkarte bakoitzak bere eguneroa darama. Bizipozan elkarte horiendako behar afektiboak eta materialak pixka bat osatu nahi ditugu. Helburu berei jarraituz, lehen aipatutako gizarteratze lan horretan-eta, hainbat jarduerak egiten ditu Bizipozak urtean zehar: jardunaldiak, prestakuntza, ipuinak hileroko Irria aldirian, ikus-entzunezkoak egiten ditugu...

Sakandarren kolaborazioa nahiko duzue, ezta?

Gure boluntario kanpaina urte guztian irekia dugu, www.bizipoza.eus web gunean Bizipoztu atala dago. Han gurekin batera Bizipoztuko den jendea behar dugu, bai norbanakoak, bai eragileak. Izan daiteke denbora, lana edo dirua eskainiz. Azken batean, denondako aukera dago, denok egin dezakegulako zerbait. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



Haur eskolan 54 ume, 7 hezitzaile eta 2 garbitzaile daude. .

Txirinbuloko langileek baldintzak hobetzea eskatu dute

Haur eskolako langileek udalari eskatu diote "behingoz, gure lana ekonomikoki aitortzea eta gure lana duintzea"

ALTSASU

Altsasuko udaletxe pareraino eramane zizuten beraien eskakizunak Txirinbulo udal haur eskolako langileek atzo. Langileek kezu agertu ziren eurak "haurren zaintzailatzat" jotzen jarraitzen dugulako, "gure zereginaren hezkuntza-funtzioa zein den ikusi gabe". Nafarroako Gobernuak onartutako martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua gogora ekarri zuten. Orduetik haur eskolen zikloak hezkuntza-izaera du, eta Hezkuntza Departamentuak arautzen du. Dekretuak ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak ere ezarri zituen.

Hezkuntza Departamentuak haur eskoletako langileei C mailako langile baten soldata aitortu zien. "Baina 12 ordainsari bakarrik hartzen dira kontuan, ez 14; beraz, praktikan, ez da C maila erreale bati dagokion finantzaketa, eta udala gure soldatak ordaintzeko orduan, modulu horietan oinarritzen da". Horregatik, eta kontratuak egiterakoan titulazio jakin bat eskatzen zaie, C mailako soldata eskatu diote udalari, 14 ordainsariak kontuan hartuko dituen, hau da, 1.340 euro gordineko oinarritzko soldata izatea. Horretarako 2020an eta 2021ean langileen soldatak 112 euro gordin igotzea eskatu dute. Bestetik, urtean 32 ordu arteko ordaindutako lizentziarako eskubidea ezartzea eskatu zuten, bigarren mailarainoko gure senideei familia-medikuarengana edo espezialistarengana laguntzeko.

Aldi berean, haur eskolako langileek oinarritzko soldataren % 15eko osagarri pedagogikoa eskatu zuten, "2007ko Dekretuaz geroztik gure eginkizunetan gehitutako lan pedagogikoagatik". Horrekin batera, beraien lanaren erantzukizun-osagarri gisa 300 euro eskatu zituzten: "adin desberdinetako 16, 12 edo 8 haur ditugu eta horiek zaindu behar ditugu uneoro, haien beharrei erantzunez, eta, aldi berean, Hezkuntza Sailak zuzentzen dituen hezkuntza-helburuak gauzatzen ditugu". Prestakuntzara zuzendutako orduak 20tik 35era pasatzea aldarrikatu zioten udalari, "pedagogiak eta metodologiak etengabe aldatzen ari baitira. Gaur egun ordu horiek edo gehiago egiten ditugu, baina gure denbora pertsonalaren kontura, eta, horregatik, aintzatespena eskatzen dugu". Txirinbuloko udalari aitortu zioten dago haur eskolako garbiketako langileen soldatak udalaren menpeko garbiketako gainerako langileekin parekatzea, baldintza bereberekin.

Langileen izenean Aintzane Martin Diaz de Otazu zuzendariak adierazi zuenez, udalak "zerbitzuaren aldeko apustu handia egin ondoren, pertsonen aldeko apustua egiteko unea da". Bestetik, Martinek azaldu zuenez, "ez da koherentea Altsasuko Udalak berdintasunaren aldeko apustua egitea, kudeaketa-eremu guztietan berdintasuna bandera gisa erabiltzea eta gero sektore bat bertan behera uztea". [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

DUELA 25 URTE...



Hiru egun berezi Arbizon

1995eko otsailaren 24tik 26ra izan ziren kinto ospakizunak. 1977koek Gau-Txoriak izena hartu zuten. Ostiralean afaldu ondoren gaua Iruñean pasa zuten. Larunbat goizean kinto-eskea egin zuten, diruaren truke moskatela, pastak eta akordeoiaren doinuak eskainiz. Bazkaldu eta afaldu ondoren Tolosara joan ziren. Igandean, bazkaldu eta akordioilariarekin kalejira egin zuten.

Frontoiko taberna hartzeko deialdia egin du udalak

Altsasuko Udalak Atabo Altsasu SL enpresa publikoaren bidez Burunda frontoiko taberna kudeatzeko deialdia egin du. Proposamenak martxoaren 11ra arte aurkeztu daitezke. Altsasuko Udalak jasotako proposamenik onuragarrienari emanen dio frontoiko tabernaren kudeaketa.

Hori bai, tabernaren kudeaketa eskuratzen duen pertsonak, edo pertsonak, ostaralitzan zerbitzua eskaintzeaz aparte bestelako egitekoak izanen ditu, Burunda pilotalekuaren mantentzeaz eta garbiketaz arduratu beharko dute, hain zuzen ere. Kontratu urte baterako da, urtero luzatu daitekeena gehienez beste lau urte bete arte.

UHARTE ARAKIL

Hemen dira kintoak

Atzo hasi eta bihar arte izanen dira kinto-ospakizunak. Kinto-eskean herri osoari emango diote buelta

Uharte Arakilen kintaden eguna duela bi aste ospatu bazen ere, aurtengo kintoek euren ospakizuna atzo hasi zuten. Hiru dira aurten kintoak Uharte Arakilen: Izai Herrador, Amets Oteiza eta Igor Arrieta. Pelukak, trapu zahar eta baserriar itxurako jantziak soinean dituztela eta bonboa aldean dutela, nabarmena izanen da haien presentzia. Atzo Motxalen bazkaldu zuten Amurgingo bidea hartu eta baserrietan eskean aritu ziren. Hango kinto-eskea despedituta Itxesia auzoko goiko aldean segituko dute jardun berearekin. Harik eta afaltzeko garaia iritsi, afaldu eta parranda egin arte.

Gaur Txomin tabernan gosalduko dute etxez etxeko eskearekin hasi aurretik. Itxesia auzoan eskatzez bukatuko dute eta he-

rrian segituko dute. Motxalen bazkalduko dute eta arratsaldean herri-ihotea ospatuko denez, harekin bat egingen dute kintoek. Anaiak tabernan afaldu ondoren parranda egingen dute. Bihar, berriz, Itxesia tabernan gosalduko dute eta falta diren etxeetatik pasako dira ondoren kinto-eskean. Motxalen bazkalduko dute eta handik aterata herri-ihote ospakizunarekin bat egingen dute. Bihar hiruko kintoekin batera, Anaiak tabernan afaltzera kinto gazteak eta kinto zaharrak elkartzeko dira, hamabosten bat guztira.

Kinto ospakizunek irauten duten bitartean hiruko kintoek ez dute etxea apenas zapatzen, izan ere, Uharte Arakilgo Udalak utzitako mojen etxean lo egingen dute.

2020ko
ihoteetako
lehiaketa

Otsailaren 5etik
martxoaren 4ra

Sariak:
Errigora kaxak
eta Guaixe25
kit-a



www.
guaixe
.eus

ARBIZU

Kinto parranda gaur hasiko da

11 gaztez osatutako kintada da aurtengoa eta asteartea bitartean zer ospatu izanen dute

Urdin turkesa koloreko atorra eta Baldarrak izena hartuta ibiliko dira aurtengo kintoak. Egunotan baserriar jantziz ibiliko dira. Hamaika dira guztira: Nerea Lakuntza, Amaia Gorriti, Eider Goikoetxea, Koldo Imaz, Iñaki Reparaz, Mikel Adur Lakuntza, Asier Mendiñueta, Aimar Sanchez, Aitor Alberdi, Iñaki Murillo eta Adur Petriati. Guztiak afaltzera elkartzeko dira eta ondorengo parranda Argi Bidea elkartearen egingen dute. Bihar hiri-inauteria dela eta kintoek beren kuadrillekin ospatuko dute.

Igandean kintoak 10:30 alderakalean izanen dira. Trikitilaria eta pandero-jolea lagun dituztela kinto-eskean ibiliko dira etxez etxe. Eskupekoa ematen dietenei pastak eta moskatela eskainiko diete kintoek esker

onez. Izarran bazkaldu ondoren autobusa hartu eta Tolosara joanen dira. Handik bueltan, kintoak industrialdera joanen dira eskean. Majo bazkaldu eta afaldu ondoren, Etxarriko kintoekin batera autobusez Tolosara joanen dira, mozorrotuta.

Kintoek asteartean egiteko asko izanen dituzte. Herri-inauteria ere badenez, kintoek arratsaldean haurrendako txokolatetara egin beharko dute, baita haiendako jolasak prestatu ere. Aittun haundiya eta Amiñ ttikiya popinak ere prestatuko dituzte, gauean plazan protagonista izanen direnak. Aldabide elkartean herri-afaria izanen da eta haren prestaketa ere kintoen esku dago. Egitekoak despedituta Altsasura joanen dira parrandan.

ETXARRI ARANATZ

Kinto hamaseikotea

Astelehenean afaltzera elkartzeko eta asteartera arte luzatuko dute parranda

Aurtengo kintada 16 gaztez osatuta dago, honakoak: Uxue Biain, Amaia Arraiza, Lorea Arraiza, Luzia Navarro, Elai Gomez, Maitena Bergera, Aratz Mariñelarena, Josu Igoa, Aimar Lizarraga, Xabi Zubietta, Mikel Etxabarri, Unax Ijorra, Markel Lakuntza, Mikel Igoa, Iratitz Zubeldia eta Amaur Arratibel. Astelehenean, kinto zaharrek batera, afaltzera elkartzeko dira eta handik Tolosara joanen dira.

Hurrengo goizean, baserriarrez jantzita, 09:30etik 14:30era kinto-eskean ibiliko dira txaranga lagunduta. Eskean ibiltzea zer den badakite urte zahar egunean eskatzen ibili baitziren. Bordan bazkaldu ondoren eta ihote kalejira despeditzen denarako auzatea prest izanen dute kintoek, 19:30ean izanen da.

Aurretik, eta ondoren

Kintoak izan dira aurreko hiruko ostegun iluntzetan, Etxarri Aranzoko inauteriko Gizakunden, Andrekunden eta Garikunden txatarraz jantzi eta zigorra eskutan dutela jendea lasterka jarri dutenak. Eskea eta ondorengo afariak ere izan dira. Kintoek ihote ospakizunetan gehiago lagundu dute, larunbateko Zalduiyoten izan zen. Eguerdian haurrendako jolasak prestatu zituzten. Haietako batzuk, gainera, mozorro lehiaketan epaile aritu behar izan zuten. Kintoek euren egitekoak Olentzeroren etorreran mustu zituzten. Eta herriko hiruko ospakizun seinaltuetan dantzakia dantzatzeko txandakatuko dira: San Kirikon, San Adrianen eta Ama Birjinan egunean.

LAKUNTZA

Kinto hamarkotea

Astelehenean eta asteartean izanen dira kinto ospakizunak

Aurten hamar gazte lakuntzar dira kintoak: Olatz Gil, Aimar Gil, Gorka Egorza, Iker Andueza, Ioritz Escudero, Aroa Cerezo, Saioa Escudero, Jokin El Marhoum, Amets Oteiza eta Sergio Romero. Haiekin batera, beste 11 kinto-gazte izanen dira, 21eko kinto-segizioa osatuz. Kinto lakuntzarrak aurretik ospakizunetako bi egunetako gosariak eta meriendak haietako zeinen etxeetan egin zozketa bidez aukeratu zituzte.

Kinto-segizioa, baserriarrez jantzita, plazan 10:30ean egingen du agerraldia. Trikitilaria eta pandero-jolea lagun dituztela, etxez etxeko eskean hasiko dira. Gosaltzeko etenaldiaren ondoren, kinto-eskean segituko dute bazkal garaira arte. Majo bazkaldu ondoren kinto-segizioak bere

egitekoarekin segituko du: bi parranda egunak pagatzeko dirua biltzen segitzea. Meriendako etenaren ondoren, kinto-eskean segituko dute, afaltzeko garaia iritsi arte. Mahaitik jasotakoan Tolosarako bidea hartuko dute.

Tolosatik bueltan, astearte goizean, atzera ere kinto-eskean segituko dute gazteek. Egitaraua bezperaren kopia izanen da. Aldaketa bakarra afaldu ondorengo parrandaren lekua da, Tolosa beharrez herri-ihotea ospatzen duten Altsasura joanen dira.

Kinto lakuntzarrak astelehena baino lehen agertu dira herritarren aurrean. San Sebastian egunean izan zen, alkate dantza dantzatzeko. Eta Korpus egunean atzera ere. Aralarko santutegian, Lakuntzako Pertza egunean, izen bereko dantza dantzatzeko dute.



Mozorro-jendea kalean nagusi

ALTSASU

MOZORRO GARAIA HAS-TEAR DA

Haurrak bihar izanen dira protagonista. Astearteko herri-ihoteak bigarren urtez segidan lanengatik ibilbidea aldatuko du. Ospakizunak heldu den larunbateko hiri-ihotearekin despedituko da

Altsasuko inauterietako aurtengo berrikuntzetako bat bere kartela da. Herri-inauteria 1982an berreskuratu zenetik 37 urtez Artzaik marraztutako momotxorroaren irudia izan da Altsasuko ihote ospakizunak iragarri dituena. Joan den urtean herri-ihotearen kontura udalak antolatutako argazki lehiaketako hiru argazki sarituen artean herri-galdeketa egin eta Jon Bustok egindako argazki bat erabili dute kartela egiteko.

Kartelean herri-inauteriko ikono bihurtu den momotxorroa ageri da ke artean. Baina ihote segizioak baditu pertsonaia gehiago: maskaritat, ereintza, akerra, sorginak, juantranposoak eta ezkontza. Eta bestelako mozorroak jantzen dituztenak: matxin gaiztoak edo jantziak trukatu dituzten kintoak, neskak gizonez eta gizonak neskez mozorrotzen direnak.

ASTEARTEKO IBILBIDEA

Joan den urtean Isidoro Melero kaleko lanengatik izan bazen,

aurten Bakea eta Amaia kaleetako lanengatik izanen da. Bigarren urtez herri-ihoteko segizioak ez du bere ohiko ibilbidea eginen, bi kale horiek saihesteko aldatu egin baitituzte ibilbidean. Ohi bezala Zelandi eskola publikotik autobus geltokiko bidegurutzerantz joko dute Isidoro Melero kalea hartzeko. Zelai kaletik San Juan kalera joko dute Burunda kalera arte. Handik Nafarroa, Alzania eta Erkuden kaleetan barna Iortia kultur guneko zabalgunerantz hartuko dute. Iortia plazatik eta Egubera kalean aurrera segi eta Gartzia Ximenez karrikara aterako da segizioa Ferialeku, Adelgoitia, Lapurbide eta Gurutze Saindua kaleetatik Zubeztia plazara ateratzeko. Handik Gartzia Ximenez kalera, Foru plazan despeditzeko.

OHARRAK

Inauteriak direla eta, Altsasuko Udalak herritarrei gogorarazi die ospakizun horietan ere etxeko eta familiako ardurak denenak direla. Horrekin batera, nabarmendu du ezezoak ezetz esan nahi duela. Eta erasorik gabeko ospakizunen alde egin du. Herri-ihotea dela eta, gogorarazi du, odolaren errituaren ondoren, mozorrorik ez dutenek Zelandi eskola publikoko eremutik atera beharko dutela. Udalak gomendatu du arretaz jokatzera eta se-

gurtasun tarteak gordetzea, ez udalak ezta ihote batzordea ere ez baitira sortutako kalte edo erreduren arduradun izanen. Bestetik, ihote-segizioa behar bezala ibil dadin, Altsasuko Udalak eskatu du Zelai, Alzania eta Bakea kaleetan ibilgailurik ez aparkatzeko. Azkenik, herri-ihoteko bazkarirako txartelak ohiko tokitan daude salgai. Haiek eskuratzeko azken eguna gaur da.

TRANSMISIOA

Inauterien transmisioa ziurtatzeko lanketan Altsasuko ihote batzordeak urtero inauteriei buruzko erakusketa antolatzen du Iortia kultur gunean. Bertatik pasatzen direnek herriko Lehen Hezkuntzako ikasleek ihotea oinarri hartuta egindako lanak ikusteko aukera izanen dute. Horrekin batera, I. Herri-ihoteko Argazki Lehiaketara aurkeztutako irudiak ere ikusgai izanen dira. Erakusketa asteartean mustu zuten, herri-ihoteko pertsonaiak bertan zeudela, eta hilaren 28ra arte ikusgai izanen da: astegunetan 18:30etik 21:00etara, larunbatetan emankizuna baino ordu bat lehenago eta domeketan 19:00etatik 21:00etara.

Egiteko horrekin berarekin joanen dira ihote batzordeko ki-deak Intxostiapunta gazte gunera bihar, herri-ihoteko pertsonaiak ezagutaraztea. Gainera, 18:00etan txokolate jana izanen da.

Argazki lehiaketa

Altsasuko Udalak bigarren urtez herri-ihoteen inguruko argazki lehiaketa antolatu du. Aurdian jaso denez, parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake lehiaketara. Edozein teknika erabili daiteke argazkietan. Irudien tamaina libre da baina lehiaketara bakoitza 40 x 50 cm-ko kartulina beltz baten gainean muntatuta aurkeztu beharko da. Atzeko aldean izenburua jarri behar da eta atxikitako gutunazal itxian egilearen datuak eta harremanetarako bideak eman beharko dira.

Lehiaketarako argazkiak martxoaren 20ko 20:00 arte aurkeztu daitezke. Iortia kultur gunean astegunetan 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Posta zerbitzua erabili nahi dutenek udaletxera (Gartzia Ximenez, 36. 31.800. Altsasu) bidali beharko dituzte. Eta e-postaz lana aurkezten dutenek herri.inauteriak. argazkiak@gmail.com helbidera bidali beharko dituzte. Epaimahaia 200, 120 eta 80 euroko hiru sari banatuko ditu. Egile bakar batek ere ezin izanen du sari bat baino gehiago irabazi.

DOMEKA 23

INAUTERI TXIKIA

17:00-19:30 Txokolate-jana eta mozorro festa Xaiborekin, bukatzean momonsuzkoa. Iortia zabalgunea

ASTEARTEA 25

HERRI-INAUTERIA

12:30 Puska-biltzea, Alde Zaharrean.

14:30 Herri bazkaria, Burunda pilotalekuan.
16:30 Momotxorro txikien elkarretartzea eta txokolate-jana. Zumalakarregi.
17:00 Momotxorro txikien irteera, musika eskolako talde batek eta Txorongo txarangak lagunduta. Zumalakarregi plaza.
17:30 Auzatea. Gure Etxea.
18:00 Inauteri txikiaren etorrera, ondoren momonsuzkoa. Foru plaza.
18:30 Kalejira. Foru plazatik Zelandi eskolara.
Torrada dastatzea. Altsasuko gastronomi-elkartarekin. Gure Etxea.
18:45 Odolaren erritua eta herri inauteriarren elkarretartzea. Zelandi eskolan.

19:00-21:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin. Foru plaza.
19:30 Herri inauteriarren irteera. Txorongo txaranga, Zangitu fanfarrea, Itsasuko txistulari eta gaiteroak eta Xapiru trikitixa eskola lagundua. Zelandi eskolatik.
19:45 Ezkontza. San Juan plaza.
20:00 Akelarrea, Dantzarima dantza konpainiarekin. Iortia zabalgunea.
21:00 Inauteri segizioaren irteera, ezkila jotzea, dantzaldia eta mozorroak kentzea. Foru plaza.
22:00-24:00 Dantzaldia Gabenara taldearekin. Foru plaza.

LARUNBATA 29

HIRI-INAUTERIA

11:00 Haize Berriak bandarekin kalejira.
12:00 Zangituko estropadak. Zubeztia kl.
13:00 Zangituko bandera ematea eta musika poteoa. Alde Zaharra.
17:00 Mozorrocall. Intxostiapunta.
18:00 Inauteri-segizioaren jaitziera, Txorongo txarangak lagunduta. Intxostiapuntatik Foru plazara.
20:00-22:00 Abiba diskofesta. Foru plaza.
22:00-01:00 Gazte afaria, kuadrilla desfilea, jolasak eta festa. Intxostiapunta.
24:00-03:00 Abiba diskofesta. Foru plaza.





Uharthe Arakil joan den urteko 'Herrixka galduen dantza' ikuskizuneko dantzariak. UTZITAKOIA

IRURTZUN

MOZORRO FESTA BIHAR IZANEN DA

Bazkaldu aurretik aterako dira mozorrotuak kalera

Ihote ospakizunak erritmoz hasteko, herenegun Irurtzungo musika eskolako ikasleen kontzertua izan zen kultur etxean. Segida emateko Atakondoa eskolak mozorroen desfilea, ha-maiketakoa, kalejira eta Mari-gorriren erretzea antolatu ditu. Aurreko urtean ostiralez herri-inauteria izan bazen, aurten ez da halakorik izanen arratsaldean, bai ordea kontzertuak Larrazpi gazte elkartearen. Kuadrillen irudimena nolakoa den bihar ikusteko aukera izanen da, ohi bezala, irurtzundarrak gai baten inguruan kuadrillako mozorrotuko baitira.

OSTIRALA 21

10:00 Atakondoa eskolako inauteria.
23:00 Kontzertuak, Larrazpin.

LARUNBATA 22

13:30 Kalejira Galtzagorri txarangarekin.
14:15 Bazkaria jubilatuta elkartearen.
14:30 Inauterietako herri bazkaria, eskolako jantokian.
17:00 Inauteritako herri kalejira Galtzagorri txarangarekin, eskolatik abiatuta.
17:30 Mozorrotutako pertsonen eta kuadrillen kontzentrazioa.
18:00 Inauteriko desfilea eta musika.
19:00 Herri txistorra-jana.

IGANDEA 23

17:00 Haurrendako zinema euskaraz kultur etxean: Asto erregea.

UHARTE ARAKIL

IHOTEEN AURRENA ETA HURRENA

Gaur herri-ihotea ospatuko da eta bihar hiri-inauteria

Uharthe Arakilgo inauteriari Galtzorratz taldeak antolatutako herri ihoteak emanen dio hasiera gaur.

Neguko urritasuna eta ilunantza irudikatzen dituen Lixerigeitz panpina herrian barna kalejiran eramanen dute mozorrotuek. Euskal Herriko ihoteetako pertsonaia ugari izanen dira kalejira horretan. Eta haren akaberan su emanen diote. Ahal badute behintzat. Izan ere, Lixerigaitzek ihes egiteko imintzioak eginen ditu, txikiak hura harrapatzeko nahian haren atzetik joanen direlarik. Azkenean, lortu ondoren, sutan bukatuko du Lixerigaitzek. Aldi berean, mozorrotuek Herrixka galduen dantza dantzatuko dute suaren inguruan. Gaurkoaren ondoren, bihar, herri-inauteria izanen da eta mozorro desberdin ugari ikusteko aukera izanen da.

OSTIRALA 21 HERRI-IHOTEA

17:00 Gozo-eltzeak.
18:00 Txokolate-jana.
19:00 Herri-ihote Kalejira, fanfareak eta joaldunak lagunduta.

20:00 Ihoteko-sua. Herrixka galduen dantza, panpinaren erretzea eta auzatea.

LARUNBATA 22 HERRI-INAUTERIA

15:00 Herri bazkaria, alondegian.
18:30 Kalejira.

ARRUAZU

MOXORROAK KALERA

Arbazuko txikiak izanen dira ihotea ospatuko dutenak etzi

Igandearekin batera ospatuko da Arruazun inauteria, haur-ihotea zehazki. Etxeko txikiak moxorroz jantzi eta igandean, 17:00ak aldera, kalera aterako dira. Moxorroek txanoa buruan, aurpegia estalia eta arpilera oihalez gorputza estalia dute. Arropa koloretsuak ere erabiltzen dituzte mozorrotzeko. Jendea berotzeko eskuan zigorra ederki erabiltzen dute. Lasterraldi bat baino gehiago izanen da igandean Arruazun. Horretaz aparte, etxez etxeko erronda eginen dute haurrek. Jasotzen dituzten jakiekin eta diruarekin Itur Gain elkartearen merienda ederra eginen dute.

LAKUNTZA

ZATAMARROEN AURRETIK MOZORRO FESTA

Bihar herri inauteria ospatuko dute lakuntzarrek eta herri-ihotearen txanda izanen da asteartean

Lakuntzarrek bazkaldu aurretik, 13:00ak aldera, kalera aterako dira eta lagun taldeak, mozorrotuta, poteoan ibiliko dira. 14:30ean inauterietako herri bazkaria hartuko du kultur etxeak. Eta haren ondoren dantzaldia izanen da han bertan. Ihote parrandari segida handik kanpo eta ordu txikiak arte emanen diete lakuntzarrek.

Asteartean, berriz, herri-ihotearen txanda izanen da. 17:00etan txokolate-jana izanen da haurrendako. Haiekin batera zatamarroak izanen dira protagonistak. Lastozko txanoa buruan, aurpegia zapiz estalia, zaku zaharra soinean eta eskuan erratza, sardea edo hurritz makila. Zigor hori jendea berotzeko baliatuko dute, horregatik, haiengandik urrun ibiltzeko hobe izanen da hankak arin ibiltzea. Zatarro begi-gorri urtien behin etorri. Errepika hori, zirikatze asmoz, zatamarroei behin eta berriz esanen diete haurrek.

ARBIZU

KUADRILLA MOZORROAK, ETA TXATARRAK

Hiri-ihotearen txanda izanen da bihar, eta herri-inauteriarena, berriz, asteartean

Kuadrillen artean zertaz mozorrotu erabakitze makina bat elkarrizketa izan ondoren, mozorroak luzitzeko eguna iritsi zaie arbizuarrei. Eta hori bihar izanen da. Denen artean kalejira koloretsua osatuko dute ihoteei hasiera emateko. Ezagunagoak dira ihote ospakizunak itxiko duten txatarmorruen jantziak: zaku edo arpilera oihala, jantzi zaharrak, ohegainekoak... Baita txatarmorruen eskutan ibiltzen duten zigorra ere. Asteartean Arbizutik pasatzen direnak, gainera, aittu-amiñ pare bat "dantzan" ikusiko dituzte.

LARUNBATA 22 HIRI-INAUTERIA

12:00 Aate, plazan.
13:00 Kalejira.
15:00 Bazkaria eta bingoa, Aldabide elkartearen.
19:00-21:00 Musika Argi Bidea elkartearen.

IGANDEA 23

10:30 aurrera Kintoak eskean.

ASTELEHENA 24

18:00 Haurrendako filma.

ASTEARTEA 25

HERRI-IHOTEA
12:00 Pixket eskien, trikitalariekin.
16:30 Dantzak, jokoak eta txokolate-jana, plazan. Kintoek antolatuta.
19:30 Aittun haundiya, amiñ tikiya eta txatarmorruak.
21:00 Afaria Aldabide elkartearen.



UNANU

MAMUXARROAK BITAN

Igandean txikiak eta asteartean handiak aterako dira kalera

Sekula mamuxarro bat ikusi ez eta igandean edo asteartean Unanura joaten bada, azkar asko jabetuko da nolakoak diren ihoteetako pertsonaia horiek. Baina, badaezpada, hona haien deskribapena: kamixeta eta galtzontzilo luze zuriak, paxa beltza edo gorria eta zatak janzten dituzte eta aurpegia metalezko katolekin estaltzen dituzte. Bi motatako mamuxarroak daude: batzuk bularraldean gurutzatuta paxpalinak dituzte, besteek ez. Aurrenekoak nondik nora dabilzan soinuagatik jakiten da, baina besteak ikusi arte ez dago jakiterik non dabilzan. Horregatik, mutuak deitzen dira. Mamuxarro guztiek zigor bat dute eskutan. Eta erabiltzeko prest daude. Horregatik, lasterkaldi bat baino gehiago izanen dira Unanun barna ihoteetako bi egunetan.

Bai asteartean bai asteartean egitarau bera dute, izan mamuxarro txiki, izan mamuxarro handi. 17:00etatik 18:00etara Unanun barna ibiliko dira jendearen atzetik. Mamuxarroak nekatu ondoren, plazan, auzatea eta musika izanen da. Horren segituan puska-biltzea eginen da. Eta, borobiltzeko, Danok Bat elkartearen herri-afaria izanen da.

LIZARRAGA

KUADRILLAK, MOZORROAK, FESTA

Hiru elementu horiekin ospatuko dira ihoteak bihar

Lizarratarrek eguerdian dute hitzordua jarrita. Intxorreta kalean



Iturmendiko hiri inauterietan giro polita izan zen joan den urtean. UTZITAKOIA

da., Ergoienako udaletxearen ondoan. Musika lagun mozorrotutako kuadrillak herrian barna kalejiran ibiliko dira. Ihote-segizioaren ibilbidea Azi Iturri elkartearen bukatuko da han inauteri bazkaria eginen delako 14:30 aldera. Majo bazkaldu ondoren, atzera ere, kalejiran arituko dira mozorrotutako lizarratarrek. Etxez etxeko puska-biltzean garai bateko "iyotetako urdei pixkat" esera erabiliko dute. Baina urdaiaz aparte txistorrak, arrautzak eta dirua ere jasoko dituzte. Horrekin guztiarekin mozorrotuen afaria eginen da. Ondorengo parrandak ordu txikiak arte iraunen du.

Azi Iturri Txokoa elkarteak antolatzen ditu Lizarragako ihoteak 2013tik. Bazkide egunik ez zuen eta ihotea horretarako aukera egokia zela erabaki zuten. Lizarragan eskolak izan ziren bitartean haurrak mozorrotu eta herrian barna eskean ibiltzen ziren. Baina ikastetxea itxi eta ihoteak galdu ziren.

GARAI BATEKO IHOTEAK

Lizarraga Ergoieneko euskara liburuan (2008, Nafarroako Go-

bernu) iyote sarreran azaltzen denez, Etxarri Aranatzan modura, Lizarragan ere astearteihote aurreko hiru ostegunak ospatzen ziren. Aurrenekoak gizonkude, gizonkude egune, gizekude edo gizekude egun izena zuen. XX. mende hasiera arte herriko gazte guztiak estali egiten ziren, normalean herriko etxeren batean, eta neskek gauerdiaurretik opatu behar zituzten. Lortzen ez bazuten, mutilak ospatzera ateratzen ziren.

Bigarren osteguna andrekunde, andrekunde egun, emakumde edo emakunde egun izena zuen. Oraingoan eginkizunak aldatu egiten ziren: neska ziren estaltzen zirenak eta mutilek haiek opatu behar zituzten. Atzeneko osteguna garikunde zen eta gazteen arteko borrorak egiten ziren. Zaldun iyotea inauteriko igandea zen eta ospakizun horretako protagonistak haurrak izaten ziren. Iyoteguna, berriz, astearte iyoteari Lizarragan ematen zaion izena da.

Antza, taatul edo kareta batez estaltzen zuten aurpegia lizarratarrek. Kartoiz egindakoak omen

ziren. Iyoteetan parte hartzen zuten mozorro edo moxorro guztiak ilun ezkilak jotzean taatulak kentzera eta aurpegia agerian uztera behartzen zituen. Garai bateko gazteak iyoteetan erroldan ibiltzen ziren, etxez etxeko puska-biltzean. Jan-edanak eskatzen zituzten merendua edo afaria egiteko. Halako eskeak kinto ospakizunetan eta herriko festetan ere egiten zituzten garai bateko gazte lizarratarrek.

BAKAIKU

HEMEN DIRA KAMARROAK

Herri-ihotea bihar ospatuko dute bakaikuarrek

Ihote bakaikuarrek joan den urteko berritasunari eutsi diote. Hala, txikien artean kamarrozaletasuna sustatzeko haur-segizioa iragarri dute biharko ere. Kamarro txikiak kalejiran 12:30ean abiatuko dira. Haien segizioak herrian barna kalejira egin ondoren, Bakarrekotea elkartearen bazkaria izanen da, 14:00etan. Majo bazkaldu eta gero, 17:30ean, kamarro kalejira hasiko da. Au-

rrena, han beiti ibiliko dira, gero han goiti ibiltzeko. Etxez etxeko erronda luzea plazan despedituko da. Ihote parrandari segida emateko elkartearen disko-jartzaile batek dantzarako musika jarriko du 22:30etik aurrera.

Kamarroak erraz asko identifikatu daitezkeen pertsonaia dira. Askok zapiz estaltzen dute aurpegia. Buruan txanoak eraman ditazkete. Edo edozein animalia buru-hezurra edo adarrak. Soinean arpilerak, farak, asko odolez zinkinduta daude. Eskutan Sakanako zigor luzeenak dituzte, bizpahiru metrokoak. Ihote segizioak gurdi bat eta bi kamarrok tira egiten dioten golda ere bada. Azken horrek ereitea irudikatzen du.

Asteartean, bestalde, haur-ihotea ospatuko da Bakaikun. Txikiek eta gaztetxoek elkartearen elkarrekin bazkalduko dute. Santa Ageda bezperan koplakantari ibili ziren eta han jasotakoarekin pagatuko dute bazkaria. Mahaitik jaso ondoren, mozorroak jantzi eta herrian barna kalejiran ibiliko dira. Akaberan txokolate-jana izanen da. Txikiek despedituko dituzte aurtengo ihoteak Bakaikun.

ITURMENDI

BITAN INAUTERI

Bihar hiri-inauteri ospatuko dute eta asteartean herri-ihotea

Iturmendiarrek joan den urtean inauteri egutegian aldaketa egitea erabaki zuten. Ordura arte igandean ospatzen zen eta haur-ihotea zena larunbatera aurreratu eta hiri-inauteri bilakatu zen. Eta horixe ospatuko dute bihar. Iturmendiko kultur batzordeak eta gazte asanbladak prestatu dute egitaraua. Bihar 14:30ean mozorrotuak bazkaltzera elkartuko dira Aitzkozar elkartearen. 17:30ean txokolate-jana

Jendetza herri ihotean

Herri ihoteak kalejira jendetsua izan zuten larunbat iluntzean Ziordian. Zomorroak, perzkinak eta artzainak herrian barna musikaz lagunduta ibili ziren. Ibilbidea plazan despeditu zuten eta han popinari su eman zioten. Ziordiko zortzikoa haren inguruan dantzatu eta parrandari nork bere modura eman zion segida. Joan den urtean berreskuratu zuten ziordiarrek hiri-ihotea eta, badirudi, gogoko dutela.



UTZITAKOIA

Bidali zure argazkiak

661 523 245

guaixe



izanen da. Mozorrotuen kalejira 18:30ean egingen da. Ibilbidean zehar Ximona gaztetxean geldialdia egingen dute, poteatzeko. Kalejira despedituta mozorrotuendako ogitar-teko afaria izanen da. Parrandak ordu txikiak arte iraunen du.

Asteartean herri-ihotearen txanda izanen da. 18:00etarako txokolate-jana prestatu dute. Jendea plazan elkartu ondoren, handik eta hemendik, kitomoxorroak agertuko dira. Lastozko txanoa buruan, aurpegia estalita, zakua soinean eta zigorra eskuan. Harekin harrapatzen dituztenak berotzen ariko dira. Gosetu direndako afaria izanen da Aitzkozar elkartean, 21:30ean.

URDIAN

HIRUETAN IHOTE

Larunbatean mantaguna izanen da, bihar momoxarro txikien txanda eta momoxarro handiak asteartean aterako dira kalera

Ihote egutegi urdiaindarrari hasiera mantagunak emanen dio bihar. Urdiainean 16:30etik 20:00etara behin baino gehiagotan esanen dute: mantaguna, guna, guna, guna, zakuan kunkuna. Hori esaten duenak lasterka alde egiteko prest egon beharko du, zigorren kolpeak jaso nahi ez baditu behintzat. Eta zeinek duen zigorra? Arpillerazko mantakedo zakuak soinean jantziak eta aurpegia zapiz estalita duten ihote pertsonaiak. Hala hasiko dira ihoteak Urdiainean.

Momoxarro txikien eguna izanen da domeka. 17:00etarako kalean izanen dira mamoxarroak. Soina estaltzeko batzuk ardi-naruak erabiliko dituzte, ohe-estalkiak besteek. Farak ere izaten dituzte. Haietako batzuek txano konikoa jantziko dute. Bestelako mozorroak ere ikusiko dira. Zigorra eskuan jendea berotzeko

asmoz ibiliko dira batera eta bestera. 20:00etara hala egonen dira, orduan aurpegia ezkutatzeko erabilitako trapua kendu beharko baitute. Despeditzeko txokolate-jana izanen da plazan.

Asteartean momoxarro handien eguna da. Txikien modura jantzita, 18:00etatik 20:00etara bati baino gehiagori korrikaldi ederrak eginaraziko dizkiote. Bai momoxarro txikiak bai handiak zirikatu nahi dituenak honako errepika esan diezaieke: momoxarro xirrikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero. 20:00etan aurpegiak agerian utziko dituzte momoxarroek. Ihote ospakizunak sorgin-afariekin segida izanen dute.

OLATZAGUTIA

HIRU IHOTE EGUN AU- RRETIK

Herri-, haur- eta hiri-ihoteak ospatuko dituzte olaztiarrek

Zamar handiak, zamar txikiak, neskak, alkatea, apaiza, medikua, almiltea eta basozaina eta Mari Arroka. Horiek dira Olatzagutiko herri-ihoteko pertsonaiak. Bihar arratsaldean kalera aterako direnak atzera ere. Haiekin batera, Guadalajarako Valdenuño Fernandezeko Paloteado eta Bortarga segizioa izanen da. Aurrenekoak dantzariak dira eta makildantza bat dantzatzeko dute. Hurrenak maskaradun mozorrotuak dira. 1721etik ohitura horri eusten diote Guadalajarako herri horretan. Olaztiarrek probintzia horretako Salmeron herrian egin zen mozorrotuen topaketan izan ziren ilbeltzaren 18an; beraz, bisita bueltatuko diete. Bestalde, ihote egitarauan agertzen ez bada ere, olaztiar talde batek sardinen erretzea egin izan du urtetan.



Aurtengo Etxarri Aranazko kintoak txatarraz jantzia. UTZITAKOIA

Inauterien antolaketaz ihote batzordea eta udala arduratu dira.

LARUNBATA 22 HERRI-IHOTEA

14:30 Herri-bazkaria, frontoian.
Postrerako: torrija lehiaketa.
18:00 Jantzeko elkarretaratzea, frontoian.
18:20 Areto futboleko pistaraino kalejiran.
18:30 Herri-ihotea, areto futboleko pistatik abiatuta.
20:00 Zortzikoa dantzatzeko dute kintoek plazan.

ASTEARTEA 25 HAUR-IHOTEA

17:00 Haurrendako merendua eta Parranda Tutiplen animazioa, frontoian.

LARUNBATA 29 HIRI-INAUTERIA

12:00 Mozorro lehiaketarako izen ematea areto futboleko pistan. Ondoren, karrozen irteera.
14:30 Herri bazkaria, frontoian.
17:00-19:30 Los Pasai txaranga.
19:00-23:00 Dantzaldia Dj Raiztirenkin.
20:00 Mozorro lehiaketako sari banaketa, dantzaldian.

ETXARRI ARANATZ

BESTE BI IHOTE EGUN GEHIAGO

Biharko eta astearteko festa-egunen zain, dagoeneko inauteriko hiru egun ospatu dituzte etxarriarrek

Otsailako aurreneko hiru ostegunetan ihoteak ospatu dira Etxarri Aranatz. Txatar itxura hartutako kintoak kalera ateratu eta jendea zigorrek berotzen aritu dira Gizakunden, Andrekuden eta

Garikunden. Joan den asteko hirtzordua emakumezko askok baliatu zuten elkarrekin afaltzeko, familian edo lagun artean.

Ihote etxarriarrek segida izanen dute bihar eta asteartean. Bigarren urtez zalduniyote igandean beharrean larunbatean ospatuko da. Aldaketa horrekin haur inauteri eguna izatetik hiri-ihotea izatera pasa zen joan den urtean. Eta aldaketak segida izanen du aurtenera. Bihar lagun taldeak mozorroto dira. Astearteiyote egunari ere eragin zioten 2019ko aldaketak. Esaterako, etxarriar guztiei txatarrez jantzeko deia egin zaie, kalejiran hala parte hartzeko. Bestetik, Kixkimau Pintto pertsonaia ere aurtenera kalez kale ibiliko da eta garretan bukatuko du. Guztien antolaketan Iyote batzordea, aurtengo kintoak, Etxarri Aranazko Gazte Asanblada, udala, tabernariak, ikastola, eskola eta Etxarri Kantuz aritu dira.

LARUNBATA 22, LARUNBATA ZALDUNIYOTE

12:00 Haurrendako jolasak, kintoak.
12:00 Etxarri kantuz, herrian zehar.
12:30 Auzatie, tabernarien eskutik.
13:00 Trikipotea, EGaren eskutik.
18:30 Mozorro txapelketa, EGA.
20:00 Musikatutako poteoa, EGA.
20:00-22:00 Musika plazan.
23:00-02:00 Musika plazan.

ASTEARTEA 25 ASTEARTEIYOTE

09:30-14:30 Kalejira txarangarekin, kintoen eskutik.
12:00 Haurrendako animazioa eta dantzaldia: Parranda tutiplen.
13:30 Txarangaren kontzertua, plazan.
17:30-21:30 Dantzaldia Orotsekin.
17:30 Txokolate-jana, estalopien.
18:30 Kixkimau Pinttoaren segizioa kalez kale, EGaren eskutik.
19:30 Auzatea, kintoen eskutik.
20:00 Kixkimau Pinttoaren erreketak, plazako zeleyen, EGaren eskutik.

Ongi pasa ihoteetan!

PORTUKO

Altsasur: 948 563 822
Lantegia: 948 467 153
Etxarri Aranatz: 948 460 988

DERRY TABERNA

SAOR DOIRE

ogitartekoak ezin hobek
kriton giroa

ongi pasa ihoteetan!

948 461 703

**LEKU ONA
TABERNA**

Bokata goxo-goxuek
launbeticen eta
astearteiyotien

Ondo pasa ihoteetan!

xapatero
taberna

Etxeko kroketak
eta bokatak

Ongi pasa ihoteetan!

948 460 162 - Etxarri Aranatz

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 21

LAKUNTZA Erotik Sakana
parekidea.

Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako l. plana eratzeko parte hartze saioak: Tokiko garapena. Izena ematea: berdintasuna@sakana-mank.eus. 10:00etatik 13:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.

ALTSASU Gazte agenda.

Sex gunea. 18:00etatik aurrera, Intxostiapunta gazte gunea.

URDIAIN Martxoak 8.

El orden divino filmaren zineforuma Maria Castejon Elorzak gidatutako saioa. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta. 19:30ean, auzoan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira
kontzentrazioak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske
kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Bad boys fo live
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia.

22:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Inauteriak.


Kontzertuak. Larrazpik antolatuta. 23:00etan, Larrazpin.

LARUNBATA 22

ALTSASU Gazte agenda.

Inauterietako pertsonaiak ezagutzen eta txokolatada. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 23



IRURTZUN Inauteriak.

Asto erregea euskarazko familiarterako filmaren emanaldia. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Bad boys for live
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Dos días y una noche
zineforum filmaren emanaldia.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 24

ALTSASU Pentsio duinen alde.
Sakanako Pentsiodunen eta
Adinduen Koordinakundea.

12:00etan, plazan.

OSTEGUNA 27

ETXARRI ARANATZ Jaione
Urtasun ipuin kontalariaren
Pantxo eta Lur magikoa.

17:30ean, liburutegian.

ALTSASU Hasta que la boda
nos separe gaurkotasunezko
filmaren emanaldia.

19:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu
gaixoak kalera, amnistia osoa.
AEMren Kontzentrazioa.

19:30ean, plazan.

ALTSASU Inauterien erakusketa. LHko ikastetxeetako ikasleek
egindako lanak eta 2019ko Inauterietako argazki lehiaketara
aurkeztutako argazkiak.

Otsailaren 5etik 16ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.


LAKUNTZA Jokin Kale artistaren erretratuen erakusketa.
Kale Txiki tabernan.

ZORION AGURRAK




Gorka Goñi

Zorionak Gorka! Iyendiontan 5 urte einen ttuzu ta fameliyen ospatuko diau zu alaitasunakin girotuta. Momoxorros jantzi ber za aurten? Muxu asko! Zu fameliye



DN
DEKOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LOKALA

ERRENTAN

Altsasun dugun bulegoa beste autonomo batzuekin partekatze-ko prest dugu. Interea baduzu jarri gurekin kontaktuan. Andoni 603 417 554.

LEHIAKETAK

Olatziko inauteriko V.mozorro lehiaketa: Otsailaren 29an, larunbatean; gaia libre eta 14 urtetik gorakoentzat. Izen ematea lehiaketaren egunean bertan, futbito pistana, eguerdiko 12:00etan. Oinarriak www.olazti.com webgunean.

12. elkar ilustrazio eta lpuin lehiaketa martxan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

GALDUTAKOAK/
OPATUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak galdu ditut Andia mendilerroan: Lizarragako tuneletik San Adrian baselizarako bide inguruan. Aurkitzen badituzu, mesedez, deitu 627 139 661 tfnora.

OHARRAK

Odol-emateak Olaztin: otsailaren 19an 17:00etatik 20:30ra, www.adona.es/eu

Sei elkarerako boluntarioak: Sei elkarrekin bakarrak dauden adingabe atzerritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartean Iturmendin eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacion-sei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzetxearen eraikina zaharberitzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700

7 5 4 6 4 6 9 3 0 6 0
0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote

Sakana Trenaren alde AHTRik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatuz egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizkuntzarako ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AEKren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Eritz Etxeberria Mugika**, otsailaren 6an Etxarri Aranatzen
- **Nahia Claver Mazkieran**, otsailaren 11n Altsasun
- **Maren Guerrero Izagirre**, otsailaren 12an Altsasun


HERIOTZAK

- **Juan Flores Razkin arbizuarra**, otsailaren 14an Altsasun


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 21




Igandea, 23



Larunbata, 22



Astelehena, 24



Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

Zure iragarki laburra gure

Merkatu txikian

948 564 275

iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak

ESKELA



Juan
Flores Razkin



Zui irrifarra
gui biyotzeko oroimenik polittena.

Zure bilobak:
Unai, Ander, Aimar, Ibai, Maider eta Irune.

Arbizu

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUL, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

FUTBOL PREFERENTEA

19. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Lagun Artea – San Miguel	0-0
Lagunak B – Etxarri Aranatz	1-4

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Beti Casedano	36
2 Lagun Artea	35
15. Etxarri Aranatz	18

HURRENGO JARDUNALDIA	
MARTXOAREN 1 EAN	
Doneztebe – Lagun A. (<i>Doneztebe</i>)	
Huarte – Etxarri (<i>Uharte Iruñea</i>)	

Etxarriren garaipen garrantzitsua
Lagun Arteak San Miguel hartu zuen. Bi taldeak ongi aritu ziren eta aukera politik sortu zituzten. Bigarren zatian lakuntzarrak hobe ibili ziren; modu guztietara saiatu ziren lakuntzarrak, baina berdindu eta lidergoa galdu zuten. Aldiz, Lagunak taldearen kontra bikain aritu zen Etxarri eta Alberdik (2) eta Iñigok (2) sartutako golei esker garaipen oso garrantzitsua lortu zuen eta sailkapeneko azken postutik atera da.

ERREGIONALA GIZONAK

19. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Doneztebe – Altsasu	1-5

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA	
1 Universidad de Navarra	49
9 Altsasu	19

HURRENGO JARDUNALDIA	
MARTXOAK 1	
Altsasu – Liceo Monj. (<i>Dantzaleku</i>)	

Altsasuk bi postu egin ditu gora
Donezteberen kontra aritu zen Altsasu. Doneztebe ez zen fin ibili, akats asko egin zituen, eta hori ongi etorri zitzaion Altsasuri. Letonak, Lobok (2), Claverrek eta Garasak sartutako golei esker, garaipen sendoa lortu zuten altsasuarrek.


ERREGIONALA EMAKUM.

21. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasuk atseden jardunaldia zuen	

SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Castejon	56
6 Altsasu	33

HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEAN	
18:30 Beti Kozkor – Altsasu (<i>Lekunberr</i>)	

Altsasuk Beti Kozkor aurkar
Atseden hartu ondoren, igandean Lekunberrin arituko dira Altsasuk neskak, sailkapenean 15. postuan dagoen Beti Kozkor taldearen kontra.



Jose Javier Zabaleta, Erik Jaka, Joseba Ezkurdia eta Julen Martija, material aukeraketan. ASPPE

Hiru sakandarrak finalerdietan

PILOTA Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkako 14. eta azken jardunaldia jokatuko da asteburuan, baina Ezkurdia-Jaka eta Ezkurdia-Martija finalerdietan daude. Aitortu dute "oso pozik" daudela hirurek aurrera egin dutelako

Maidar Betelu Ganboa SAKANA
Asteburuan Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako 14. eta azken jardunaldia jokatuko da, baina Erik Jaka eta Jose Jabier Zabaleta liderrak (11 puntu) eta Joseba Ezkurdia eta Julen Martija bigarrenak (9 puntu) dagoeneko martxoaren 7an hasiko diren finalerdietarako sailkatuta daude.

Ligaxkako azken jardunaldia
Nobedade moduan, otsailaren 29an eta martxoaren 1ean play-offak jokatuko dituzte 3. eta 6. postuen artean sailkatzen diren bikoak. Bi partida hauetatik aterako dira finalerdietako beste bi bikoteak. Hortaz, postu horietan nor sartu, lehia handia dago azken jardunaldian, eta euren bikoak play-offetarako sailkatzeko borrokan. Aspek eta Baikok erabaki polemikoak hartu dituzte.

Horrela, larunbatean, Labriten, Aspek hala erabakita, Elezcano II.ak Irribarria ordezkatu du. Unai Lasok eskuin eskuan mina du eta Peña II.ak hartuko du bere tokia. Horrela, Elezkanok eta Rezustak (5 puntu) Peña II.a eta Albisu (6 puntu) izanen dituzte aurkari (17:45, ETB1).

Igandean, Bilbon, Ezkurdia eta Martija Olaizola II.aren eta Urrutikoetxearen (5 puntu) kontra ariko dira (17:00, ETB1). Astelehenean, Tolosan, Altunak eta Ladis Galarzak (7 puntu) puntu bakararra duten Oinatz Bengoetxea eta Mariezkurrena izanen dituzte aurkari (16:30). Victorrek ordezkatu du leitzarra azken jardunaldietan, baina oraingoan Bengoetxearen alde egin du Baikok. Eta azkenik, asteartean, Tolosan, Jaka eta Zabaleta Artolaren eta Imazen (8 puntu) kontra lehiatuko dira.

Zabaletak dio Jakaren "goseak" lagundu diola
Jose Javier Zabaletak eta Erik jakak ligaxkako 13 jardunaldietatik 11 partida irabazi dituzte eta bi galdu –Laso eta Albisuren kontra (21 eta 22) eta Ezkurdia-Martijaren kontra (22 eta 19)–. "Oso pozik gaude bide luze honetan partida asko irabazi ditugulako; horrek azken partidarako konfiantza emango digu" adierazi digu. Entrenamendu fisikoak bakoitzak bere kabuz egiten ditu, eta frontoiko entrenamenduak batera egiten dituzte Jakak eta Zabaletak, gehienak

ZABALETA: "OSO POZIK GAUDE EGINDAKOAREKIN; EA FINALERDIETAN ERE ONGI GAUDEN"

Tolosan eta batzuk Labriten. "Errutina berdinekin jarraitzen ari gara" azaldu du arakildarrak.

Bikote bikaina osatzen dute Zabaletak eta Jakak. Lehendabiziko momentutik primeran elkar ulertu dute. "Lehenengo partida Irribarriaren eta Rezustaren kontra jokatu genuen. Beraiek ez zuten euren egunik onena izan, eta Erikek kristoren partida jokatu zuen, tanto pila bat egin zituen. Partida horrek bie konfiantza eman zigun eta hortik aurrera oso ongi ibili gara. Bi partida galdu ditugu, baina beste asko kostatu egin zaie guri irabaztea; hori garrantzitsua da, ea horrela segitzen dugun" gaineratu du. Erik Jakarendako hitz gozoak ditu. "Asko hitz egin dugu eta entrenamenduetan bikote bezala hobetzen saiatzen gara. Nik uste dut bera txapelketa honetara kristoren gosearekin iritsi dela, eta hori ere niri transmititu dit; horrek asko lagundu dit".

Zabaleta egungo atzelaririk onena da. Horretan ados dago katedra. "Gauza hauek entzutea beti da polita. Jendeak gauza horiek esaten dituenean gogo gehiago ditut entrenatzen eta hobetzen segitzeko, nire mailarik onena emateko" aitortzen du Etxarrengoak.

Asteartean ligaxkako azken partida jokatuko dute Artolaren eta Imazen kontra. "Gu profesionalak gara; beti irabaztera ateratzen gara eta horretan saiaturik gara. Inauteriak dira, eta egun

polit horretan jokatzeko eta Tolosan, niri asko gustatzen zait" adierazi digu. Lagunak eta gertukoak saiatzen dira ahal dutenean frontoira hurbiltzen, eta oso eskertuta dago Zabaleta.

Play-offak jokatu direnez, aste bateko atsedena izango dute. "Niri gehiago gustatzen zait dena jarraian jokatzeko, baina aste horretan itxoitea tokatuko zaigu. Horrela tokatu da, eta ahalik eta hobekien entrenatzen jarraituko dugu, finalerdietara ahalik eta hobekien iristeko" dio atzelariak.

Finalerdietan zerotik hasiko dira berriz. "Orain arte egindakoak ez du ezertarako balio eta finalerdietan beste txapelketa bat hasiko da. Beste hiru partidak izango dira, eta horietatik gutxienez bi irabazi beharko dira finalera iristeko. Ea garaipenak lortzen jarraitzen dugun eta finalerdietan ongi gauden" adierazi du. Oso pozik dago hiru sakandarrak finalerdietan daudelako. "Hirurek txapelketa jokatu dugu eta finalerdietan gaude. Hirurak finalerako sailkatuko bagina? Niretzat kristoren poza izango litzateke, eta uste dut Sakana guztiarendako ere gauza polita izango zela" aitortzen du.

Julen Martijak uste du partidak "hobeto" bukatzen dituela

Julen Martijak onartu du finalerdietarako sailkatuta daudenez, aste honetan "lasaiago" daudela. Hala ere, berak eta Ezkurdiak berdin-berdin jarraitzen dute entrenatzen, igandean ligaxkako azken partidaren Olaizola eta Urrutikoetxea aurkari dituztelako. "Enpresarendako partida garrantzitsua da, guk irabaziz gero Irribarriari eta Rezustari mesede handia egingo diegulako. Irabaztera aterako gara, baina partida zaila dugu aurretik" aipatu du Martijak.

Binakakoa txapelketa nahasia izan da sakandarrendako. Josebaren gripearengatik partida asko defentsa lan ikaragarria eginez atera zituzten aurrera. Orduan Martija izan zen arbizuarraren sostengua. "Beti saiatzen naiz pilota gutxi galtzen. Partida batzuetan lortu dut, eta

MARTIJA: "JOSEBAK IZUGARRI LAGUNTZEN DIT; ETA NI PILOTA GUTXI GALTZEN SAIATZEN NAIZ"

sarritan, gutxi failatzen baduzu, irabazteko lortzen duzu. Josebak gora egin du eta azkeneko partidak oso ongi jokatu ditu. Partida guztietan asko laguntzen dit eta horrek konfiantza ematen dit. Txapelketa luzea da eta erregular izatea nahi genuen, eta uste dut hori lortu dugula" adierazi du arakildarrak.

Etxeberriko atzelariak txapelketa honetan pausu bat aurrera eman du. "Nik uste partidak hobeto bukatzen ditudala; aurreko urteetan urduriago jartzen nintzen. Beti egoten dira urduritasunak, esaterako ostiraleko azken partidaren, baina partidak lasaiago bukatzen ditut orain" aitortu digu.

Ezkurdiarekin primerako bikotea osatzen du Martijak. "Berarekin txapelketa baino lehen erlazio oso ona neukan eta nik uste dut ongi jokatzeko hori dela printzipala, berarekin ondo eramatea eta ongi ulertzea. Josebak izugarri laguntzen dit; pilota txarraren bat izan behar dudanean, badakit berak lagundu behar didala. Eta ni ere saiatzen naiz pilota gutxi huts egiten; horrek Josebari konfiantza ematen dio" gaineratu du.

Elkarrekin entrenatzen dute eta material aukeraketetara ere elkarrekin joaten dira. "Txanda gidatzen dugu" kontatu du. Euskal Herri guztian barna ibili dira. "Normalean jokatzeko ez diren frontoietan aritzea tokatu zaigu, baina garaipen asko lortu ditugu eta nik uste ongi etorri zaigula" aipatu du Martijak.

Finalerdietan hutsetik hasiko dira. "Aurreko bi urteetan finalerdietan txapelketatik kanpo geratzeko tokatu zait; ea aurten finalerako sailkatzea lortzen dudan" dio Martijak. Play-offetan atsedean hartu beharko dute. "Guk normal jarraituko dugu entrenatzen, jokoa ez galtzeko" azaldu du.

Hiru sakandarrak finalera heltzea ikusgarria litzatekeela uste du. "Sakandarrendako oso handia izango litzateke hirurak final batean egotea. Baina beno, oraindik asko geratzen da, finalerdietan dena oso zaila. Ea lortzen dugun" dio.

Joseba Ezkurdiak dio "gozada bat" dela Martijarekin aritzea Finalerdietarako sailkatuta dagoelako "lasai" dagoela aipatu du Josebak, "buruz lasai, tentsioa jaitzita". Orain, helburua fina-



Elkarren kontra aritu zireneko lehen partidaren Jaka eta Zabaleta gailendu ziren eta, bigarrean, Ezkurdi eta Martija. EIDER MUGARTEGI

lerdierdiara ongi iristea dela dio. Txapelketa gorabeheratsua izan du arbizuarrak. "Hasieran tentsazioak onak ziren, partida pare bat eskapatu zitzaizkigun detaleengatik, baina jokoz ongi ari ginen. Gero gripeak harrapatu ninduen eta beherakada galanta sumatu nuen. Konfiantza, jokoa, dena galdu nuen eta konfiantza ez dagoenean ahalik eta egokien defenditzea tokatzen da, gauzak ahalik eta sentzilloen eta hobekien egiten saiatu. Behintzat puntuak lortzen segitu genuen eta orain pozik nago ematen ari garen mailarekin. Bide onetik goaz eta ea hala segitzen dugun" dio.

Martijarekin oso ondo moldatzen da. "Astetik atera konfiantza gehiago dugu, gehiago eza gutzen gara... oso gustura nago Julenekin. Mutiko oso jatorra da, majoa, ogi puska bat, eta kanta barruan oso konpetitiboa, gauzak asko eta ongi egiten dituen eta gozada bat da berarekin aritzea. Harreman ona dugu eta hori kanta barruan nabaritzen da" gaineratu du. Martija atzelari "oso konpetitiboa eta ona" dela berresten du Ezkurdiak. "Bista handiko pilotaria da, intuizio handia duena, eta horrek asko egiten du. Beheraldia izan nuenean berak eusten ziren partiduei eta partidak aurrera ateratu zituen. Txapelketa handia egiten ari da, baina aurreko urtean ere maila altua eman zuen. Denbora darama atzelari on bat izaten eta gorenean lehiatzen".

Igandean Olaizolari eta Urrutikoetxeari irabazi nahi diete, tentsazio onekin jarraitu eta Irribarriari eta Rezustari laguntzeko. "Bi aste hauek aprobetxatuko ditugu entrenamendu fisikoei kaña emateko" azaldu du.



Zabaleta eta Ezkurdi Martijarekin, lehendabizikoek Binakakoa irabazi zutenean. ASPE

Jaka eta Zabaletak bikote "oso ona" egiten dutela uste du. "Zabaleta nik esango nuke egungo atzelaririk onena dela; diferentziak markatzen ari da eta asko ari da jokatzeko, maila oso altuan. Eta Erik ere bai. Jose bezalako atzelari batekin jokatzeko aukera oso ongi ari da aprobetxatzen, eta momentu oso onean dago, tantoak bukatuz eta erakustaldiak eginez. Une honetan biko oso zaila da irabazteko, baina ea hemendik bi astera eskua sartzeko modua dugun" dio, irribarrez.

Play-offak saihesteagatik kontentua dago arbizuarra. "Aurten bigarren postu hori lortu nahi genuen play-offak saihesteko. Play-offak tentsio handiko partidak izanen dira eta finalerdie-

EZKURDIA: "MARTIJA DENBORA DARAMA ATZELARI ON BAT IZATEN ETA MAILA GORENEAN LEHIATZEN"

tatik kanpo geratzeko arrisku handia dago".

Finalerdietan beste txapelketa berri bat hasiko da. "Orain arte egindakoak ez du ezertarako balio. Ea gure maila ematen dugun eta hasieratik konpetitiboak garen. Politia izango litzateke bai Julemendako eta baita niretzat ere finalerako sailkatzea. Tentsazio onak ditugu, baina zaila izanen da; ea lortzen dugun. Partidaz partida joan behar dugu, finalerdiak ongi prestatu eta ea zer ateratzen den" gaineratu du arbizuarrak.

Finalera hiru pilotari sakandarrak sailkatzea handia izango litzateke Ezkurdiarendako. "Final horretan lau pilotarietatik hiru sakandarrak izatea latza litzateke; orain ere finalerdietan hiru egotea ez da broma, gauza handia da. Eta polita. Gurean pilota asko segitzen da, asko mugitzen du pilotak eta polita da hiru sakandar finalerdietan egotea, eta, zergatik ez, finalean?" dio. Halaber, jarraitzaileen babesa eskertu du.

"Gure taldeak bihotza du, kasta"

ROBERTO MARTIL FERNANDEZ OSASUNA MAGNA XOTAKO KAPITAINA

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xota talde irurtzundarrak, zailtasunak zailtasun, 10 urte daramatza Lehen Mailako Espainiako Koparako eta play-offetara sailkatzen

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Irurtzongo lagun koadrila batek sortu zuen Xota areto futbol taldea 1978 urtean. Talde xumeak gora egin zuen eta 1997-1998 denboraldian kategoria gorenera iritsi zen. Lehen mailan ibilbide bikaina darama Roberto Martil Fernandez irurtzundarra kapitaina duen taldeak.

Zenbat urterekin hasi zinen Xotan?

6 urterekin. Irurtzunen Xotarekin lotura estua dago. Gogoratzen dut txikitatik jarraitzen genituela Xotaren partidak. Areto futbolaz gain, karatean ibiltzen nintzen, nire aitak, Luis Martilek gidatzen baitzuen Irurtzongo Shotokan taldea. 18 urterekin kirol bat hautatu behar izan nuen eta areto futbola aukeratu nuen, aitari disgustua emanez (kar, kar...). Bi kirolek ez dute zerikusirik, baina karateak balore asko ditu, txikitatik iltzatuta geratu zaizkidanak, errespetuarena bereziki, eta areto futbolearen praktikan jartzen saiatzen naiz. **Ohorezko mailan Xotarekin debutatu zenuen?**

2. mailako Xota B mailan nengoela, 2005-2006 denboraldian 8 partida lehen taldearekin jokatu nituen eta gainontzekoak 2. mailan. Talde nagusirako saltoa handia zenez, Imanol Arregik aipatu zidan aukera ederra litza-tekeela niretzat kanpora ateratzea. Javier Noveleta irurtzundarrarekin batera 2. mailako Salou taldera joan ginen eta 2006-2007 denboraldia egin genuen bertan, gustura. Etxetik ateratzea ongi etorri zitzaidan. Gero, itzuli eta Lizarran hasi nintzen, 2007-2008 denboraldian. Baina 2008ko ilbeltzean Imanolek Xotako talde nagusian aritzeko deitu ninduen. Eta ordutik nago Xotarekin, lehen mailan. Urteak pasatzen dira, konturatu gabe...

Imanolen konfiantzazko gizona zara, atzelari-hegala, eta kapitaina.

Bai, urte asko eman nituen bigarren kapitain. Javi Eserverri zen orduan gure kapitaina, jokalaria bikaina eta taldeko erreferentea, eta hura erretiratu zenean nik hartu nuen erreleboa.

Zein da kapitain baten lana?

Jokalaria guztien izenean hitz egiten du kapitainak, bai pistan eta baita kanpoan ere. Rafa Usin eta Araça dira bigarren eta hirugarren kapitainak. Finean beteranoenak izaten gara kapitainak, eta jokalaria berriak gidatzen eta babesten saiatzen gara. Orain Ion Cerviño irurtzundarra behetik igo da, eta aholkuak ematen eta bera laguntzen saiatzen zara, bera ongi sentitu dadin.

Lehen mailako talde askorekin alderatuta, Xota herri txiki bateko klub xumea da. Hala ere, beti dago goian, play-offetarako eta Espainiako Koparako sailkatzen. Horrek meritu handia du, ezta?

Sekulako meritua du, guk ere ez diogu duen garrantzia aitortzen. Klub umila da gurea. Inter Movistar, Barça eta El Pozo Murcia dira ligako ahaltsuenak, izugarri ginetik daudenak, eta gero badaude beste lau zapabost talde gure ginetik daudenak: Valdepeñas, Cartagena, Levante, Jaen... eta urtez urte azken hauen ginetik egotea lortzen dugu. Beti errepikatzen dut: harrigarria da 2.000 biztanleko herri batetik lehen mailan eta talde berean lau irurtzundar egotea: Asier, Saldise, Ion Cerviño eta ni. Ez dut halakorik ezagutzen. Kluba Irurtzungoa da, staffa edo talde teknikoa baita ere, Imanol Arregi entrenatzailea esaterako, eta zuzendaritza gehiena Irurtzungoa. Oso polita da duela horrenbeste urte sortu zen taldeak irautea, eta maila gorenean. Bere garaian

partidak Irurtzundik Iruñera eramateak min pixka bat eragin zuen, baina erabakia hartu beharra zegoen, pabilioi handiagoko behar baitzen. Eta nahiz eta partidak Iruñean jokatu, taldea Irurtzungoa da, eta zale irurtzundar asko joaten da Anaitasunara gu animatzera. Eta garrantzitsuena da oraindik ere Xotako harrobitik lehen mailara iristen diren jokalaria irurtzundarrak sortzen direla.

Irurtzundarren babesa sentitzen duzu?

Bai, izugarria. Anaitasun pitar berotzera ateratzen garenean irurtzundarrak ikusten ditugu berehala, taldea animatzen. Eta kalean jendeak animatzen zaitu eta galdetzen dizu. Hori oso polita da. Lehen mailan jokatzeko dugu, baina Irurtzunen bizitza normala egiten dugu, beste edonork bezala. Taldeko gainontzeko jokalaria Iruñean bizi dira eta han egiten dute bizitza, baina batzuetan nik Iratxora afaltzera gonbidatzen ditut. Araça behin igerilekuetara etorri zen eta herriko haur guztiekin igerilekuetako futbol zelaietan jolastan aritu ginen... Herriarrak gu ikustera ohituta daude, baina herritik

"PLAY-OFFETARAKO ETA KOPARAKO SAILKATZEN 10 URTE DARAMATZAGU; MERITUA HANDIA DA"

"PLANTILLA MOTZA DUGULA ESATEN DIGUTE BESTEEK; AHAL DUGUNA DUGULA ERANTZUTEN DIET"

kanpo bizi diren jokalariai datorrenean aztoratu eta poz-pozik jartzen dira.

2023ko ekainera arte luzatu dizute kontratua.

Oso kontentu nago. 33 urte beteko ditut datorren astelehenean, eta 36 urterekin bukatuko nuke kontratua. Adin horrekin, sasoz ongi jarraitu dezakezu edo maila jaisten hasi, ez dakizu ongi gorputzak nola erantzun duen. Klubak egin zidan proposamena, eta oso eskertuta nago, eman didaten konfiantzagatik. Ea konfiantza hori bueltatzerik dudan.

Tatono Arregik esan duenez, hurrengo denboraldian Xotak atzera ere bere burua "berrasmatu" beharko du, eta zuk ere bide horretan zurea eman beharko duzu.

Taldeak izango dituen bajekin zer gertatzen den ikusi beharko da, baina azkenean betikoa da. Lanak ongi egiten ditugu eta talde handiak gure jokalaria bila datoz eta eramaten dituzte. Tatonok esandakoa, atzera ere taldea berrasmatzea dagokigu. Egoera konplikatu da, krisiak kirolean eragiten jarraitzen duelako. Nik ez dut inolako arazorik; dugun taldea izanda, helburua gogor borrokatzea izango da, ahal dugun guztia ematea.

Zailtasunen ginetik beti aurrera egitea izan da taldearen ezaugarrietako bat.

Zuzendaritzak une oso gogorrik izan ditu babesleak bilatzen, guztioi soldatak ordaindu ahal izateko. Euren lana txalotzekoa da eta guk kantxan dugun guztia ematen dugu. 10 urte jarraian daramatzagu Espainiako Koparako eta play-offetarako sailkatzen. Normalizat jotzen da, baina honek sekulako meritua du, eguneroko lan itzela dago atzean, eta ea horrela jarraitu dezakegun. Eka iritsiko da uneren bat ezinezkoa izango dena, baina guztia eman eta egindako lanarekin kontentu egotea da gakoa, eta gertatu beharrekoa gertatu dadila.

Gaizki ohituta gaude, urtero maila bikainean aritzen zaretelako...

(Kar, kar...). Normalizat ematen da. Espainiako Koparako bospasei jardunaldiren faltan sailkatu ohi gara, eta hori ez da batere normala. 15 jokalaria dituzten plantillen kontra ari gara borrokan, eta guk 12 jokalariko taldea dugu, aurten 11 gara eta filialetik igotzen den mutila...

Zer esaten dizute beste taldeko jokalariek?





Roberto Martil Xotako kapitaina da, Imanolen konfiantzazko gizonetako bat. XOTA

Oso plantilla motza dugula. Nik beti erantzuten diet ahal dugun plantilla dugula. Errealistak izan behar dugu, eta iristen zarenera iritsi. Ezin diozu jokalarari bati duzuna baino gehiago eskaini. Dena den, talde honek bihotza handia du, kasta ateratzen du, arraza, eta helburu potoloak lortzen ditu. Eta gainontzeko taldeek balio hori eman eta aitortzen digute. Jokalarari gutxi gara eta lesioak daudenean hiru aldaketarekin jokatu behar dugu, ostiralean Inter Movistar liderrarekin egin genuen bezala, Ion Cerviño eta Iñigo Fernandez jubenilekin. Bestalde, polita da eurek partida garrantzitsu horretan jokatzeko aukera izatea. **Movistarren kontra galdu egin zenuten baina bikain aritu zineten.**

Imanolek esan zigun gure lanarekin oso kontentu zegoela, sekulako partida jokatu genuela eta gol aukera asko izan genituela. Baina talde ahaltsu hauekin gol aukera horiek gauzatu behar dituzu, eurek bi aukerekin gol bat egiten dizutelako. Pena, etxean indartsuak garelako. Baina akatsak zuzendu eta aurrera.

Asteazkenean Levanteren kontra jokatu zenuten eta larunbatean Valdepeñasekin ariko zarete.

Asko indartu diren taldeak dira biak. Levantetik zuzenean joan ginen Valdepeñasera. Puntuak lortuz gero, aurki jokatu den Espainiako Koparako animoak hartzeko bikaina litzateke.

Espainiako Kopa martxoaren 5etik 8ra jokatu da eta final laurdentan talde potoloaren kontra aritzea tokatu zaizue: Barça.

Niretzat Espainiako Kopa areto futboleko torneo politena da. Lehen itzuliko lehen zortzi talde sailkatuek jokatzeko dute, aurten Malagan. Talde guztiak hotel berean egoten gara eta sekulako giroa egoten da. Barça egokitu zaigu, talde indartsuena, baina ilusio handia dugu, ez litzateke irabazten diegun lehen aldia izango...

Talde potoloen kontra aritzea gogoko duzue, pizten zarete...

Argi dago, ez? (kar, kar...). Joan den urtean Peñiscolaren kontra aritu ginen, gurea bezalako taldea, eta partida hori ateratzea asko kosta zitzaigun, penaltietan egin genuen aurrera. Barça tokatzen bazaizu badakizu guztia eman behar duzula eta beldurrik gabe ateratzen zara, jakinda gauzak ongi eginez gero irabazi ahal dugula, beti modu positiboan.

Imanol Arregi entrenatzailea Xotaren erreferenteetako bat da.

Argi dago Imanol, bere anaia Tatono presidentearekin batera, Xotaren zutabeetako bat dela. Sekulako eskaintzak izan ditu baina ez da Xotatik joaten, talde honekin duen loturak eta kolore hauekiko maitasunak bulkatuta. Ni bere produktu bat naiz. Haur bat nintzanean hartu eta trebatu ninduen, eta ni gaur naizena berari esker da. Oso gertukoa da, berarekin edozertaz hitz egin daiteke, gurekin afaltzera dator... oso pertsona ona da eta ahal duenean laguntzen zaitu, eta aldi berean, laguntzen uzten da. Pertsona bezala, 10 bat.

Aspil Vidalen kontra Tuteran jokatu partidan zale batek Araçaren kontra egindako oihu arrazista bat entzun eta berarengana joan zinen, taldekidea defendatzera. Arbitroak txartel horia atera zizun. Irudi horiek sare sozialetan buelta eman zuten. Halako irain arrazistak ezin dira onartu inoiz eta inon, ez kirolean ez bizitzan. Guztiz salagarria da eta espero dut inoiz halakorik ikusi behar ez izatea. Araçak gola sartu zuen, zendu berria zen aitari eskaintzen ari zen, eta pertsona bat horrela jartzea... Paperak halako moduan galtzen dituzten pertsonak, edukaziorik gabekoak, ez lukete inolako kirol partidetara joan behar. Nik ezin nuen hura onartu. Horren gainetik egon behar nuela esaten zidaten beste taldekoek, lasaitzeko, baina nik ezetz nioen, berdin zitzaidala kantxatik kanporatzea, ni ez nengoela halako portaeren gainetik. Kirolariak izateagatik ezin ditugu ahalako irainak onartu, ez arrazistak direnak ez gure senitartekoen kontra entzun behar ditugunak ere. Sarrera bat erosi izanagatik ikusleek ez dute iraintzeko eskubiderik. Gauza horiek ez ditut onartzen.

"IMANOLEN PRODUKTU BAT NAIZ; HAURRA NINTZENEAN HARTU ETA NI GAUR NAIZENA BERARI ESKER DA"

"KIROLARIAK IZATEAGATIK EZIN DITUGU IRAIN ARRAZISTAK ONARTU, INOLAZ ERE"

Babes handia izan zenuen sare sozialetan.

Hurrengo egunean sare sozialetan sartu eta notifikazio pilo bat nituela ikusi nuen. Harritu nintzen. Eskertuta nago. Eta klubetik ere hasieratik babestu ninduten. Araçarekin lagun handiak gara, bidaietan logela partekatzen dugu eta asko hitz egiten dugu. **Nolakoa da zure egun normal bat?** Astelehen, astearte eta asteazkenean arratsaldean entrenatzen dugu, 16:00etatik 18:30era, gutxi gorabehera, eta ostegun eta ostiraletan goizez. Horri asteburuko bidaiak eta partidak gehitu behar zaizkio eta astekoak, tokatzen direnean. Familiarekin egoteko tartea badaukat. 4 hilabeteko alaba daukagu eta bikotea oraindik bajan dago, baina aurki hasiko da lanean eta nola edo ahala, moldatuko gara.

Bidaiak luze egiten dira?

Autobusez egiten ditugu beti. Niri ez zaizkit luze egiten. Kartetan jokatzeko orduak eman ditzaket, eta bestela taldekideekin hitz egin, pelikularen bat ikusi, musika entzun...

Xota zale gehien mugitzen duen taldea izango da lehen mailan.

Zalantzarik gabe. Sarritan talde ahaltsuenek baino zale gehiago biltzen ditugu. Barçak 2.500-3.000 zale izaten ditu bere kantxan, El Pozok ez ditu ikusle asko, Inter Movistarrek bai, baina guk Anaitasuna betetzen dugu. Barça, Inter edo halakoak datozenean lehenago saltzen dira sarrerak, baina edozein talde etortzen dela, Anaitasuna gehienetan bete egiten da. Sekulako zortea dugu dugun afizioarekin.

Nola ikusten duzu Xotaren etorkizuna?

Talde nagusian gauzak ongi egiten ari dira, errealistak dira. Duela urte batzuk zenbait taldek 4 urteko kontratuak eskaintzen zituzten, oso ongi ordainduak, baina bi urtera soldatak ezin ordaindu egoten ziren. Hemen, zuhurrak dira eta gauzak ongi egiten dira, buruarekin. Eta harrobian sekulako lana egiten ari da. 200 neska-mutiko baino gehiago trebatzen dira klubean. Duela 5 urtera arte ez zegoen nesken talderik, baina orduan nesken senior talde bat atera genuen, nik entrenatzen ditut, eta horren atzetik emakumezkoen beste hiru talde sortu dira: kadeteena, haurren mailakoa eta kimuena. Xotaren harrobia hazten doa, lan bikaina egiten ari da.



Imanol Arregi, areto futboleko entrenatzaile onenaren sariarekin. NAFARROAKO FEDERAZIOA

Imanol Arregi eta Jesus Alberto Martin sarituak

ARETO FUTBOLA Nafarroako Entrenatzaileen Batzordeen eskutik aitortza jaso zuten

Nafarroako Futbol Federazioko Entrenatzaileen Batzordeak Entrenatzaileen Astea antolatuz aurreko astean eta teknikariei aitortza egin zien. Tartean, Osasuna Magna Xotako Imanol Arregi irurtzundarra areto futboleko teknikaririk onena izendatu zuen Nafarroako Entrenatzaileen Batzordeak. Pozik jaso zuen oroigarria irurtzundarrak. Saria jasotzeaz gain, areto futbolaren inguruko mahai inguru batean parte hartu zuen Imanolek, Espainiako selekzionatzaile Fede Vidalekin eta Orvinako Ivan Marcokekin batera.

Horretaz gain, iaz kategoriaz igo ziren taldeen entrenatzaileek ere aitortza jaso zuten, eta tartean zegoen Lakuntzako Lagun Artea taldeko Jesus Alberto Martin Davila entrenatzailea, Lagun Artea erregionaletik preferentia igo zuen Martinek.

Osasuna Magnak Valdepeñas arerio

Inter Movistarren eta Levanteren kontra galdu eta gero, bihar, larunbata, 13:00etan, sailkapenean 6. postuan dagoen Osasuna Magna 3. postuan dagoen Valdepeñasen kontra ariko da (Gol).



IRATXO

Lirainak taldea, txapelduna

BOTXA Irurtzungo Iratxo elkartetik sortutako makina bat taldek hartu zuten parte Nafarroako Botxa Txapelketan. B mailan, Iratxoko bi taldek jokatu zuten finala, Lirainak taldeak eta AHTrick EZ taldeak. Final oso estuan, Lirainak taldeak 20 eta 16 irabazi zion AHTrick EZ taldeari eta Lirainak du Nafarroako Botxa Txapelketako B mailako txapelduna.

Gernikak oraindik ez du gerra galdu

SASKIBALOA Naiara Diez kapitain altsasuarraren Lointek Gernikak EuroCupeko final zortzirenetako joaneko partidaren 61 eta 71 galdu zuen Valencia Basketen kontra, Malosten. Asteazkenean bueltako partida jokatuko da, Valentzian

EuroCupeko final zortzirenetako joaneko partida jokatu zuen asteazken iluntzean Lointek Gernika Bizkaia taldeak Valencia Basket taldearen kontra. Maloste leporaino bete zen Naiara Diez kapitain altsasuarra eta bere neskek animatzeko, baina Marea Granatearen bulkada ez zen nahikoa izan.

Bi taldeak parez pare ibiliko zirela aurreikusten zen, eta horrela izan zen partidaren lehen hiru laurdenetan. Naiara Diez kapitainak esana zuen bizpahiru punturen aldean ibiliko zirela bi taldeak, eta lehendabiziko hiru laurdenetan hori izan zen partidaren joera. Lehen laurdenean 16 eta 17 aurreratu zen Valencia Basket, bigarrenean 32 eta 29 aurreratu ziren gernikarrak, eta Naiara Diez eta bere taldekideak 52 eta 46 jarri ziren aurretik hirugarren laurdenetan. Baina azken laurdenean dena pikutara joan zen. Gernikarrak hausporik gabe geratu ziren. Nina Milic



Naiara Diez. MARIA MENTXAKA

jokalariaren laugarren falta pertsonalak taldea lotu zuen, eta punteria falta sumatzen hasi ziren gernikarrak, saskiratzeak huts egiten; aldiz, konfiantza bereganatzen hasi ziren valentziarrak. Gasolinarik gabe, behe-

ra egin zuten gernikarrek eta, azkenean, 61 eta 71 galdu zuten. "Milic-en laugarren faltak min handia egin digu. Ez dakit faltarengatik edo nekearengatik, hustu egin gara. Beste eskenatoki bat nahiago genuke, aldeko 10 punturen aldea, baina oraindik final-zortzirenak zabalik daude eta dugun guztiarekin joango gara asteazkenean Valenciara, EuroCupean jarraitu ahal izateko" azaldu zuen bukaeran Juana Maria Molina Lointek Gernikako jokalariek.

Izan ere, norgehiagoka batean porrot egin dute gernikarrek, baina oraindik ez da gerra galdu. Hurrengo asteazkenean EuroCupeko final zortzirenetako itzulerako partida jokatuko da Valentzian. Malda gogorra da, baina inork ez zuen esan hau erraza izango zenik. Kantxara konplexurik gabe atera beharko dute Mario Lopezen neskek, saria potoloa baita: EuroCupeko final laurdenetara pasatzea.

FUTBOLA Sakanako Futbol Topaketetan atsedendia

Inauteri ospakizunetan murgilduko da Sakana hurrengo bi asteetan. Hori dela eta, Sakanako Futbol Topaketetan etenaldia egingo da. Benjaminek hurrengo jardunaldia Urdiainen izango dute, martxoaren 8an, igandearrekin, goizeko 10:00etatik aurrera. Eta kimuen hurrengo jardunaldia apirilaren 26an jokatuko da, Lakuntzan.

Bestalde, Elomendiko Futbol Txapelketan sailkapenean bigarrena den Arakilgo Zaldua taldeak Barasoain liderrari 3 eta 2 irabazi zion. Barasoainek lider jarraitzen du (39 puntu) eta Zaldua 2 puntu exkaxera kokatu da (39 puntu). Inauteriak direla eta, asteburuan ez dago jardunaldirik.



ASTANA

Izagirre Provenceko Tourrean

TXIRRINDULARITZA Nairo Quintana ikusgarri aritu zen Frantziako Provence Tourrean eta Arkea Samsic talde berriarekin bere lehenengo garaipena lortu zuen (15:31:50). Astanako Alexandr Vlasov 1:04 minutura sailkatu zen. Iazko garaile Gorka Izagirre zierdiarrak Astanako bere taldekideen aldeko lan itzela egin zuen eta 31. postuan sailkatu zen, 6:18ra.



Amortziaren elioiak eta Sakaña taldetako kideak, Otsagabian. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Lehen fasea amaituta, finalaurrekoak iritsi dira

Bardoak 2020ko lehen fasearen azken saioak jokatu ziren aurreko asteburuan, eta dagoeneko finalaurrekoen multzoak osatu dira. Sakaña sakandarren taldeak hurrengo faserako txartela 'in extremis' lortu zuen Otsagabiako saioan

SAKANA


Malerrekako Bertsonautak, Le-sakako Arranopola, Leitzako Atekerberts komeni, Berako Lamixene, Barañaingo Hego haizea eta Sakanako Sakaña taldeek lortu dute Nafarroako Taldeko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetan sailkatzea. Aurreko asteburuan izan ziren lehenengo fasearen azken saioak. Otsailaren 29tik martxoaren 14ra jokatu dira finalaurrekoak eta guztira sei saio egingen dira: Anizen, Tuteran, Atarrabian, Tafallan, Goizuetan eta Jaunsaratsen. Aurtengo berrikuntza finalaurrekoetako saioak normalean bertsolaritza iristeko zaila diren herrietan egingen direla da. Orain arte sailkatuen herrietan egiten ziren saioak.

Otsailaren 29an jokatu du finalaurrekoaren lehenengo saioa Sakañak Tuterako Beterri peñan, 19:00etan, Atekerberts komeni taldearen kontra. Buelta martxoaren 6an izanen da, 19:30ean, Atarrabiako Etxebeltza elkartean. Sakañak ostiralean jokatu du Otsagabiako saioan lortu zuen hurrengo saiorako txartela. Saioa jokatu izan zen, izan ere, herrian

erroak dituen Amortziaren elioiak taldeak irabazi zuen saioa, baina faseko sailkapenean berdinketa eman zenez, desenpatean irabazi zuten sakandarrek. Lehen fasean 26 puntu jaso ditu Sakañak, eta D multzoko bigarren sailkatua da, Lamixene taldearen atzetik.

Finalaurrekoak

Bertsonautak izan da A multzoko hoberena, eta Arranopola B multzoko hoberena izan da, 31 eta 32 punturekin, hurrenez hurren; beraz, finalaurrekoetako saioetan arerio izango dira. Anizko elkartean izango dute lehenengo saioa, otsailaren 29an, 19:00etan. Finalaurrekoetako bigarren saioa Goizuetako udaletzeko ganbaran egingo dute, martxoaren 14an, 18:00etan. Finalaurrekoetako hirugarren taldea D multzoko hoberenak, Lamixene taldeak, 28 punturekin, eta A, B eta C multzoetako bigarren sailkatuak, Hego haizea taldeak, 22 punturekin, osatzen dute eta lehenengo saioa Tafallako Aguazon peñan egingen dute martxoaren 7an, 18:00etan. Bigarrena Jaunsaratzeko udaletzeko ganbaran izanen dute, martxoaren 14an, 19:00etan.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Zer da kultura askea?

Iada 11. kolaboraziora iritsi naizen honetan, euskaraz hain berezia den hamaika zenbakira, kultura askea zer den azaltzeko garaia iritsi dela iruditzen zait.

Baina hasieratik hasiko naiz. Gizartearen lehenengo hastapenetan, sortzen zen guztiak jabari publikoa zen, idatzitakoak, errezetek edota istorioek. Edozeinek erabili, kopiatu edo aldatu zezakeen bizilagunak asmatu zuen abesti eder hori. Kopia hauei esker, idazki asko enperadore maltzurren sugarrek erre gabe gelditu ziren.

1710. urtean hasi ziren kultura komertziala mugatzen, egile-eskubideen bidez. Kultura komertziala, produzitu eta saltzen den edo saltzeko sortzen den kulturaren parte hori da. Eta gainontzekoa, kultura ez komertziala da, adibidez,

aiton-amonek beren bilobei kontatzen dizkieten istoriotxoak.

Baina lege haiek geroz eta zorrotzagoak egin ziren, edozein sormeni aplikatuz. Eta gainera, kulturaren zabalpena oso kontrolatua zen, bide komertzialak erabiltzen.

Internetek guzti hau hankaz gora jarri zuen. Sormenak zabaltzeko bide berriak agertu ziren, enpresetatik kanpo. Hau dela eta, egile-eskubide lege berriak ezarri dira ia herrialde guztietan, baina ez hainbeste egilea babesteko helburuarekin, negozioa babesteko helburuarekin baizik, zabalpen kontrolatua egite aldera.

Hortik sortu ziren kultura askea babesten zuten mugimenduak. Mugimendua softwarearen aldetik sortu zen batez ere, baina ondoren, sorkuntza guztira zabaldu zen.

Baina zer da benetan kultura askea? Sorkuntza lan zabalpen eta aldaketarako askatasuna da. Hau da, hastapenetara bueltatu eta kultura herrira bueltatzeko modua izango litzateke. Kultura askearen bitartez, edozeinek sortu dezake kultura eta jakintzak elkarbanatzeko eta hobetzeko aukera izango litzateke, negozioa helburu duten enpresak alde batera utzita.

Jende askok askea eta dohain izatea nahasten ditu, eta ez da horrela. Kultura askeak ez du zergatik dohainik lan egitea esan nahi. Sortzaileek zerbait sortzeagatik irabaziak jaso ditzakete, baina ondoren zabalpena askea izango litzateke. Adibidez, sortzaile batek aldizkari batean publikatzeko ilustrazio bat egiten badu, ilustrazioarengatik diru bat jaso dezake, baina ondoren, ilustrazio hori zabaltzen den bakoitzean ez du inork kobratuko, ez berak, ez inork.

Nafarroako txirulari gazteen topaketa egin zen larunbatean

Nafarroako hemezortzi musika eskoletako ikaslek parte hartu zuten Iruñean egindako kontzertuan

SAKANA

Irurtzungo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko musika eskoletako zeharkako hainbat ikaslek aurreko asteburuan egin zen flauta-joleen topaketan parte hartu zuten. Abesti ezagunetako erreperitorioa egin zuten Nafarroa osotik heldu ziren txirulariek. Gonbidatutako artista Mariana Fernandez flautajole ezaguna izan zen.

Nafarroako Flauta-joleen Topaketa Iruñeko Musikaren hiriaren Fernando Remancha aretoan egin zen, larunbatean, eta txirulari gazteek Vivaldi Celta (Hughes de Courson), Piratas del Caribe (Kaus Badelt), We will flute you (Queen taldearen abesti mitikoaren adaptazioa), The flintstones (H. Curtin, J. Barbera eta W. Hanna), El Manisero (Moises Simons) eta 007 The James Bond Theme (M.



Flauta-joleen topaketa.

Norman) abestiak interpretatu zituzten.

Nafarroako hemezortzi musika eskolek parte hartu zuten topaketan, tartean Irurtzungo musika eskola, Etxarri Aranazko musika eskola eta Altsasuko Musika eta Dantza eskola.

E. Carreño / E. Ruiz ETXARRI ARANATZ Euskal Herriko herrietako plaza asko ezagutu ditu Tximeleta taldeak. Festa asko girotu dituzte. Duela 20 urte sortu zen, eta hasieratik Mikel Mundiñano Zato etxarriarra dago. Duela 16 urte inguru Maider Ansa abeslaria sartu zen taldean, eta gaur egun arte erreperitorio zabal bateko abestiak interpretatu ditu. 2020a "euskal plaza taldearen" azken urtea izanen da; 'Azken hegaldia'.

Nola sortu zen Tximeleta taldea? Mikel. Garai hartan anaiarekin kontzertuak egiten nituen, Mundiñano anaiak taldean. Momentu horretan ere Jator taldea ibiltzen zen Sakanan eta bertan Txuma eta Fabian aritzen ziren. Txuma gitarrarekin eta Fabian baxuarekin. Iruñeko bi gazte ziren orduan. 2000. urteko iraila edo izango zen eta Jator taldearen ibilbidea bukatu behar zen. Beraien asmoa zen euskal plaza talde bat sortzea, euskara oinarri zuena eta trikitia behar zuten. Orduan, nirekin harremanetan jarri ziren. Hor hasi ginen. Hasieran hirurok elkartu ginen, eta gero abeslari batekin hasi ginen, teklista batekin eta bateria-jotzaile bat topatu genuen. Lehenengo seikotea horrela izan zen. Pixkanaka-pixkanaka erreperitorio bat osatu genuen eta entseatzeko hasi ginen.

Noiz eta nola sartu zinen, Maider? Maider. Ez dakit zein urtetan sartu nintzen. 18 urterekin sartu nintzen. Abeslaria behar zuten eta probak egiteko deitu zidaten. Eta beste neska bat hartu zuten. 16 edo 17 urterekin egin nituen probak, eta oso gazte nintzen. Gauza batengatik edo bestearengatik beste neska hura hartu zuten, eta hurrengo urtean neska horrek esan zidan ez zegoela ezta ez oso ongi, eta igual kontzertu batzuk jarraian bazituzten berak pare bat egingo zituela eta nik beste pare bat. Gero denboraldi osoan ez zen agertu eta nik egin nuen. Baina oso gustura.

Zergatik Tximeleta?

Mi. Egia esan, izena erabaki zen bilera hartara ez nintzen joan. Momentu horretan seikote horretatik euskaraz jakingo genuen bakarrik abeslariak eta biok, seitik bik, eta, orduan, Txumak eta Fabianek izen euskaldun bat nahi zuten, esateko arraza. Hasieran ez zitzaidan batere gustatu, baina gero denborarekin Tximeleta idatzita ikusten nuen eta kariño pixka bat hartu nion.



Tximeleta taldeko kideak talde argazki batean. TXIMELETA TALDEA

"Musika, alaitasuna eta aldarrikapena eramán ditugu"

MIKEL MUNDIÑANO ETA MAIDER ANSA TXIMELETA TALDEKO KIDEAK

20 urteren ostean 'Azken hegaldia' egingen du aurten Tximeleta taldeak. "Fase bat bukatzen" dela esan dute Mikel Mundiñano eta Maider Ansa taldeko kideek

Mai. Gainera, tximeletak ere gaudela hasieratik. Maiderren 16. urtea da. Aldaketak baterian eta gitarran izan dira, gehien bat. **Ma.** Kalkuluak egiten 19 bat pertsona pasa direla ateratzen zait. **Ongi eramán dituzue aldaketak? Mi.** Ez da erraza. Kontuan izan behar da gu bezalako plaza talde batek daukala kristoren erreperitorio zabala eta aldaketa bat dagoenean entsegu pila bat egin behar dira, eta kanta berdinak entseatu behar ditugu. Gainera, lagun batekin gustura zaude eta bat-batean uzten du; beste talde

20 urteko ibilbide honetan, taldea askotan aldatu da?

Mi. Hasieratik Fabian eta biok gelditzen gara. Bigarren urtean, urtea bukatu baino lehen, Animal teklista sartu zen. Orduan, esan daiteke Animal, Fabian eta ni

gaudela hasieratik. Maiderren 16. urtea da. Aldaketak baterian eta gitarran izan dira, gehien bat. **Ma.** Kalkuluak egiten 19 bat pertsona pasa direla ateratzen zait. **Ongi eramán dituzue aldaketak? Mi.** Ez da erraza. Kontuan izan behar da gu bezalako plaza talde batek daukala kristoren erreperitorio zabala eta aldaketa bat dagoenean entsegu pila bat egin behar dira, eta kanta berdinak entseatu behar ditugu. Gainera, lagun batekin gustura zaude eta bat-batean uzten du; beste talde

Ongi eramán dituzue aldaketak? Mi. Ez da erraza. Kontuan izan behar da gu bezalako plaza talde batek daukala kristoren erreperitorio zabala eta aldaketa bat dagoenean entsegu pila bat egin behar dira, eta kanta berdinak entseatu behar ditugu. Gainera, lagun batekin gustura zaude eta bat-batean uzten du; beste talde

20 urte, eta disko bakarra. Mai. Bada plaza talde bat garelako. Abestiren bat aurretik bageneukan grabatuta eta denekin diskoa osatu genuen.

Mi. Egongo dira makina bat talde diskorik ez daukatenak. Azkenean, plaza talde baten oinarrian bertasioak daude, eta orduak guk hasieran horrela egin genuen. **Zenbat plazetan egon zarete? Mi.** Kontatuta ez ditugu, baina 1000 kontzertutik gora egin ditugu. Mila kontzertu 20 urtetan. Urtean bataz beste 50 kontzertu baino gehiago egin ditugu.

Mai. Horietatik 260 bat Sakanan. **Gehienak Euskal Herrian? Mi.** Denak Euskal Herrian. Behin Kataluniara jotzera joan ginen eta gu hasi behar ginenean eurria hasi zen eta bertan behera gelditu zen.

Toki kuttunen bat? Mi. Badaude leku batzuk esaten duzula: ai ama. Adibidez, anekdota moduko bat: Sanferminetan Herriko Tabernaren txoko horretan jo dugu urte askotan eta beti berezia izan da debekuaren mugan egon garelako. Udalak ez zion herrikoari baimena ematen eta, hala ere, guk jo egiten genuen. Balkoitik jotzea tokatu zaigu, baldintza oso txarrak zirela. Baina sentsazioak oso onak ziren; ez digute uzten, baina guk egingo dugu.

Mai. Polita da. Donostiako Piratak ere kristorenak izan dira. Baita edozein herri txikitari ere. Ustekabean sorpresa oso politak hartzen gaituzte. Beti oso ongi zaindu digute. Hori da, nire ustez, politena. Ongi zaindu izan gaituzten herritan beti gustura egon gara. Igual da handia izan, txikia... **Tximeletak badauka elkartasunerako joera hori, ez? Mi.** Sortu zenetik esan dugu guretzako plaza aldarrikatzeko gune bat dela ere, eta guk zeregin pertsonal bat bezala hartu genuen. Hasieratik gure izaeraren barne egon da, argi eta garbi, plazak alaitzeko, dantzatzeko eta kantatzeko badirela, baina aldarrikatzeko gune bat badirela ere. Azkenean, plaza horretan elkartzen da herriko aniztasun guztia eta gune garrantzitsu bat da. Gune egoki bat aldarrikapenak egiteko. Tximeletaren barne egon den aspektu garrantzitsua izan da. 20 urtetan saiatu gara musika eramaten, alaitasuna eramaten, baita aldarrikapenak eramaten ere.

Ba al dago plazaren bat ez zaretena egon, baina egon nahi zenutena? Mai. Saiatu gara behin baino gehiagotan Lekeition muturra sartzen. Festa sana iruditzen zaigu.

Ba al dago plazaren bat ez zaretena egon, baina egon nahi zenutena? Mai. Saiatu gara behin baino gehiagotan Lekeition muturra sartzen. Festa sana iruditzen zaigu.

Ba al dago plazaren bat ez zaretena egon, baina egon nahi zenutena? Mai. Saiatu gara behin baino gehiagotan Lekeition muturra sartzen. Festa sana iruditzen zaigu.

Mi. Galdera hori erantzuteko pentsatu egin behar da... Zeinetan ez dakit. Baina Maider ez da egon ni egon naizen leku guztietan, Zugarramurdiko kobazuloetan egon ginen jotzen, esaterako. **Herri oso dantzari bat, dantzariena ez esateagatik?**

Mai. Zaldibi oso dantzaria da. Zestoa ere bai niretako kuttunetarikoa da. Harreman ona daukagu Zestoako jendearekin.

Mi. Ados, bai. Gatzgabekoak zein diren ez galdetu, hori ezin dugu esan.

Gertu daudelako?

Mi. Izan daiteke. Egia esan, guretako herria izan daiteke gatzgabea, baina herritarrendako gu gara gatzgabekoak. Hori ere hartu behar da kontuan. Gu azkenean joaten garen plaza guztietara antzeko saioak egiten ditugu; ez dago diferentzia handia erreperitorio berdina delako. Eta egun guztiak ez dira onak izango, guztioi gertatu bezala. Orduan, askotan guk esaten dugu herria motela dela, baina herriak esaten du gu garela gatzgabeak. Faktore asko daude hori neurtzeko. Ezin gara hain zorrotzak izan.

Mai. Elkar elikatzen dugu. Izan daiteke ez giroa ez gu giroan ez egotea, eta konektatzea ez lortu. Baina baliteke gu ez egotea, baina haiek bai, eta orduak lortzen dugu. **Oholtzetan eta kioskoetan aritu zarete. Zein nahiago duzue?**

Mai. Giroa desberdina da. Kioskoa agian ez da hain eroso. Aurrera begiratzen duzu eta beste eszena-tokietan bilduago bezala zaude, pribatutasun gehiago ematen dizu. Zerbait gaizki egin eta atzera begiratu dezakezu eta bateria-jotzaileak bakarrik ikusiko zaitu aurpegi arraroa jartzen, baina kiosko batean seguru beste norbaitek ikusten zaituela ere.

"TALDEAREN FASE BATEN AMAIERA IZAN DA; HORRELA UZTEA MODU POLITA IZANGO ZELA USTE GENUEN"

"OHOLTZARA IGO ETA DENA AHAZTEN ZAIT; ABESTEN EZ DUENAK ZORIONTASUNIK EZ DU"

Mi. Eta nik uste kioskoak daukan beste gauza bat da soinu bandetarako ez dela batere ona, ez ditu baldintza egokienak. Bere berezitasunak ditu ere. Etxarrin, adibidez, kanpotik etortzen den jendea zur eta lur gelditzen da edozein gauza jo ere kioskoari buelta, buelta eta buelta egiten zaiolako. Baina, jendeak bueltak ematen baditu, atzean ez du berdin entzungo. Alde onak eta txarrak ditu.

Erreperitorio zabala duzuela diozue, zenbat abesti ditu?

Mai. Ehun eta piko kanta daude. **Kanta gogokoen bat?**

Mai. Azken urte hauetan nik oso gustura kantatzen dut Berri Txarrak taldearen *Katedral bat*, adibidez, Indarra dauka eta oso gustura egiten dut.

Mi. Baneukan kanta bat lehen jotzen genuela eta orain ez duguna jotzen: Ken Zazpiren *Zapalduen olerkia*. Ez dakit ongi gelditzen zitzaigun, baina gustatzen zitzaidan.

Eta zailena?

Mai. Michael Jacksonen kantu batzuen zatiak abesten ditugu, bata bestearen ondoren, eta kanta baten giroa hartzen duzunean, bestea hasten da. Gainera, Michael Jackson oso karakteristiko da. Ezin duzu imitatu eta zure xarma ematen badiozu ere...

Nolakoa da zuen kontzertu egun bat?

Mi. Hogei urtetan aldatu da egunerokotasun hori. Nik uste lehenengo urteak askoz gogorragoak izan zirela, alde batetik, hasierako urteetan jendeak ez zaitu ezagutzen eta lekua egin behar duzu. Lekua egitea ez da erraza. Herrietara joan behar zara haiek jakin gabe zer egiten duzun, badakite euskaraz egiten duzula. Orduan, terrenoa pixka bat markatzen joaten zara: zure erreperitorioa, zure giroa, zure dena... eta kostatzen da. Lehenengo urte horietan inbertsioa egiten duzu ere. Ordu asko eskaini genizkion. Nafarroan jotzen genuen, eta Nafarroan ordutegiak arratsaldean eta gauean, goizeko 5ak arte, ziren. Denborarekin baldintzak borrokatzen dituzu eta lortzen dituzu. Azken lau urtetan baldintzak hobetu dira. Guk ez dugu ekipoa muntatzen eta guretako hori aurrerapen bat da.

Nafarroan herri gaupaseroenak daude?

Mai. Ordutegi hori mantentzen da. Behin tokatu zait goizez, arratsalde eta gauez herri berean.

Mi. Nik uste herri txiki asko direla eta taberna bakarra dago, orduan, plazako musika oso garrantzitsua da. Ohitura zaharra da hori. Eta guri ez zaigu asko tokatu, baina garai batean goizeko kontzertua ere bazegoen, vermut-ean. Behin egin dugu. Baina talde askok ohitura normal bezala zuten. Herrietara joaten ziren eta eguerdi, arratsalde eta gau egiten zuten.

Egun oso biziak dira, beraz.

Mai. Baina niretako nahiz eta egun txar, gaixo egon eta zertarako joan behar naiz ni kontzertu batera galdetu... gero oholtzara igo eta sendatzen naiz. Endorfinak izango dira. Kantatzen ez duenak zoriontasunik ez du.

Urte hau berezia izango da, ez?

Mi. Ziur. Azkena da, beraz... Berezia izango dela argi dago. Hasi gara gauzak prestatzen. Despedida kanta bat egin dugu, eta web orri bat martxan jarri dugu ere.

Mai. Nik uste negar pila bat egin behar dudala. Herri bakoitzean agurtu beharko gara, eta herri batzuetan urtero egon gara. Etxarrin azkeneko notak jotzen ditugunean izango da... Ziur momentu hunkigarri asko pasako ditugula. Ni dagoeneko hunkitzen naiz.

Erabaki naturala izan da?

Mi. Taldearen fase baten amaiera izan da. Nik nahiko naturalki hartzen dut. Nik ez nuen nire burua bizitza osoa plaza talde batean ikusten. Beraz, bukatu behar zen. Uste dut ongi egin dugula erabaki dugulako guk noiz bukatu eta nola bukatu. Izan zitekeen beste modu batera, higaragatik, eta ez da horrela izan. Nekatuta gaude, bai, geroz eta neke gehiago sortzen du uda batek. Baina ez da horregatik. Gainera, beste belaunaldi batzuk daude orain. Jendearekin konektatzen dugu, jendeak ez digu bizkarra eman, gurekin jarraitzen du, plazak betetzen jarraitzen du, plazak betetzen jarraitzen dugu eta ezin dugu esan plazak galduta daudenik. Taldean erabaki genuen modu polita izango zela horrela uztea.

Mai. Plazak berpizten ikusi ditugu. Modu naturalean zintzo izaten bukatzea hoberena zela erabaki genuen. Denok ados geunden.

Agur kontzertua prestatzen ari zarete?

Mi. Zerbait egongo da. Baina ez dugu ezer esango. Ez da kontzertua izango, guk egiten duguna egingo dugu, hau da, bukaera festa bat.



Antzerki tailerretako amaiera festa. NAF. ANTZOKI SAREA

Antzerki tailerrak, ikastetxeetatik festa handira

'Oholtzara salto' programaren antzerki tailerren festa izan zen asteburuan, Tafallan

SAKANA

Lau ekimenek osatzen dute gazteak arte eszenikoetara hurbiltzeko programa. Nafarroako Antzoki Sareak antolatzen du, eta sarean parte hartzen duten herriek parte hartu dezakete. Gainera, ikastetxeetako elkarlana ere ezinbestekoa da, izan ere, programaren ekimenak ekasgetan egiten dira. Aurtengo nobedadea antzerki foruma izan da. Baina bigarren urtez, antzerki tailerrak egin dira ikastetxeetan ere. Tailerretan parte hartu duten ikasle guztiak asteburuan bildu ziren Tafallan egindako amaiera festa batean. Belen Alvarez Quiero teatroko kidea izan zen festaren arduraduna, eta ikasleek zirku, hip hop eta perkusio ikastaroak egin zituzten. Gainera, ikasgelan prestatutako esketx bat erakutsi ahal izan zuten ere. 154 ikasle elkartu ziren.

Oholtzara salto programaren hiruekimen egingen dira Sakanan. Lehenengoa Dantzaz konpainiaren dantza erresidentzia izan zen. Esclavos felices ikuskizunaren emanaldiarekin amaitu zen. Altsasu BHIko DBH 2. mailako eta Andra Mari ikastolako DBH 4. mailako ikasleek parte hartu zuten. Antzerki tailerra izan zen bi ikastetxetan egon zen bigarren ekimena. Asteburuan Nafarroa osoko 154 ikasle elkartu dira antzerki tailerren amaiera festan. Ramoni Lopez Nafarroako Antzoki Sareko idazkari teknikariak adierazi duzuen bezala, iaz baino herri eta ikastetxe gehiagok parte hartu dute antzerki tailerretan,

beraz, ikasle gehiagok ere parte hartu dute antzerki tailerretan. "Aurreko urteko esperientziarekin alderatuta, aurten amaiera festan pertsona gehiago batu dira. Tailerretan parte hartu dutenen % 80 inguru bertaratu zen". Iaz erdia baino ez zela joan azaldu du.

Antzerki tailerra

Programaren antzerki tailerren helburua ez da, berez, antzezan bat egitea. "Monitore bakoitza mundu bat da. Gazteen interesen eta nahien arabera izan ohi da". Dena dela, aurtengo berrikuntza izan da tailerretan ikastetxeen arteko "erronkak" egin dituztela. Beraz, tailerretan erronka horietan egiteko "esketxak prestatu dituzte". "Kontuan izan behar da oso denbora gutxian egiten direla tailerrak. Nahiz eta urrian hasi, ez dira hainbeste saio". Hortaz, lehenengo saioak antzerkiarekin "kontatua hartzeko" erabiltzen dira eta gero "erronka horiek prestatzeko" baliatu dituzte azkeneko saioak. "Erronka guztiak bideoan grabatu genituen eta web orrian zintzilikatuko ditugu".

Antzerkia hezkuntzarako tresna izan daiteke. Hortaz, programaren aurtengo berrikuntza antzerki forumak izan dira. Ikasgetan egiten diren saioak dira, hiru ordukoak, eta antzerkiaren bidez aniztasunaren inguruko gaiak jorratzen dituzten. Etxarriko eta Olaztiko eskoletan egingen dituzte antzerki forumak martxoan eta maiatzean.



Galdakaoko Andra Mari dantza taldeko kideak Altsasuko inauterien antzezpena egiten. ANDRA MARI DANTZA TALDEA

"Amnesia kolektibo bat egon zen inauteriekin"

Galdakaoko Andra Mari dantza taldeak berreskuratu zituen Altsasuko inauteriak, 1970ko hamarkadan. Orain, inauterien inguruko dokumentala sortzen ari da, eta aurreko astean hitzaldi bat egin zuten. Kepa Otaegi antropologoa eta taldeko kidea da.

E. Carreño / E. Ruiz ALTSASU

1 Noiz galdu ziren Altsasuko inauteriak?

1916. urtean gutxi gorabehera, guri data hori eman digute. Data zehazten ari gara, dokumentatzen.

2 Eta zergatik galdu ziren?

Oso biolentoak ziren; herri inauteri guztietan elementu komun bat da. Altsasun ezbehar bat gertatu zen. Pertsona bat sustoarekin hil egin zen eta herriaren trauma bat sortu zen eta ezkutatu egin zen. Amnesia ko-

lektibo bat bezala egon zen, eta inauteriak ahaztu egin ziren. 60 urtez inork ez zekien ezer.

3 Andra Mari dantza taldeak berreskuratzeko lanak hasi zituen. Nola hasi zen berreskurapen hori?

1973. urtean Isidro Aldasoro Amundarañek sorpresaz esan zion Patxi Goikoetxeari Altsasun garai batean karnabaletan narru batekin, saski batekin eta ez dakit zerekin kalean ibiltzen zirela. Patxi liluratuta gelditu zen, apuntatu zuen eta apuntatutako guztia Jose Mari Satrustegiri eman zion.

Satrustegik liburu batean aipamen hori argitaratu zuen. Juanan Urbeltzek irakurri zuenean material oso inportantea zegoela pentsatu zuen. Orduan, inauteriak berreskuratzeko gaia atera zen eta Andra Mariri Altsasura ikertzera joateko esan zioten.

4 Noiz antzeztu zen lehenengo aldiz?

1977. urtean Sestaon eta Tolosan. Tolosara Satrustegi, Patxi, Amaia eta Urbeltz ere joan ziren eta oso lan polita eta duina izan zela esan zuten. Denak oso pozik gel-

ditu ziren. Hurrengo urtean, 1978. urtean, antzeztu zen lehenengo aldiz Altsasun. 60 urteren ostean.

5 Ohitura berreskuratu zen, beraz.

Altsasuko herriak, gazteek, ikusitakoarekin mugitzen hasi ziren eta guztia prestatzen hasi ziren. 1982an, larunbatean, Andra Mari dantza taldeak antzezpina egin zuen Burunda frontoian. Igandean mahai inguru bat egin zen eta asteartean Altsasuko herriko jendeak egin zuen lehen-dabiziko aldiz antzezpina. Gerortik gaur egun arte. Tartean ere Enrike Zelaia datuak biltzen aritu zen.

6 Pertsonaia guztiak berreskuratu ziren?

Momotxorroak berreskuratu ziren. Goldea ere bai, hazia eta landa landatzen aritzen direnak, errautsak botatzen aritzen direnak ere... egia da Juantranposoen kontu hori ezin dela finko den argitu. Hori gehitu da. Hor ika-mika bat dago pertsonaia antzez-

pena den edo antzezpina pertsonaia den. Maskaritatik ere lehenagotik egoten ziren.

7 Eta Akerra eta sorginak?

Akerrarena eta akerrarekin zerikusia duen guztia Enrikeren ekarpena izan zen, baita Momotxorroen dantza ere.

8 Astearte inauterietan Altsasun egon zarete?

Bai, eta aurten ere hor ibiliko gara.

9 Aurreko ostiralean hitzaldia eta dokumentalaren aurrerapena egin zenuten. Zergatik egin duzue?

Galdakaon ere Altsasuko inauteriak ospatzen dira. Dantza taldeak bakarrik ospatzen dugu, baina badauka bere lekua. Taldean gazteak sartu dira, eta taldearen urteurrena zela eta, gazteek galdetu zuten ea zergatik ospatzen genuen; izan ere, arraroa da Galdakaon urtero Altsasuko karnabalak antzezte. Orduan, errora joatea erabaki genuen; lokarria bilatzera. Lokarria da 1970ko hamarkadan Andra Marik lan egin zuela Altsasun bertan inauteri hori berreskuratzen. Berreskuratzen egon ziren pertsonekin hitz egiten hasi ginen.

10 Zer kontaktzen da dokumentalean?

Gu hasi ginen zuzeneko testigantzak jasotzeko asmoarekin eta ikusi dugu istorio polit bat dagoela. Bide horretan gabilta.

11 Altsasu aldera iritsiko da?

Dokumentala oraindik ez dago amaituta. Taldean hasi zen arren, nik uste bidezkoena bertan egitea dela.

ZATOZ ISKOLARA!

ZUEN IKASTETXEAK MARIKULAZIO KANPAINARAKO BEHAR DUEN GUZTIA HEMEN

BIBLINDA ETA KOMUNIKAZIOA

948 564 275 • Foru plaza, 23-1 Altsasu
info@gkcomunikazioa.eus